

Etxe aintzindea .Mahi baten gainean liburu batzu eta josteko zarea. Kadera edo fotila zombait. Goiza da. Oihala altxatzean ez da nehor Ageri . Ttanta Matilda eta Angelé ikusiko ditugu ixtantean. Bat alarguntsa, bertzea mutxurdina, 600urte ingurukoak K. Matilda emaste bipila, manatzailea. Angeli aldiz extia eta umila. Euxebio aldiz etxeko mutila...

Matilda eta Euxebio.

- Mat : EUXEBIO ,EUXEBIO.....
Eux : Heldu naiz, heldu etxekanderea...(mertxika adar lonetsua ditu eskutan. Buru has da, bainan kopeta mokanes handi batez lotua)
Mat : Bainan oraino hemen ? Trainaren tenorea da ixtantean...
Eux : Ez kecha, aizina dugu!
Mat : Aizina ? Ganbera-ko orenean hameka orenak dira !
Eux : Bai eta enean berriz hamarrak et'erdiak...Eran dezagun beraz hamekak laurden guti direla !
Mat : Zuk diozu aizina dugula , bainan trainaren tenora da !
Eux : Goazen, goxoan ! Hameka eta laurdenetako trainare ez da behin ere eguerdi laurden guti arte arribatu, !
Mat : Bai bainan egun ahantzian balitz ?
Eux : Ez izan beldurrik ! Hori bezain xuxen erabil zen den trainik ez da. Duelako 30 urte hoitan berant bera du!
Mat : DENa den, erna zite. Karrosa atalatu duzu ?
Eux : Bai anderea, bortan da.
Mat : Eta lili zuri horiek ? Nik abanperdeak galdegin dauzkitzut !
Eux : Bai anderea, zuk adarrak, eta perdeak. Andere Angelik aldiz lili xuriak. Eta nik aldiz ekarri mertxika adar xuriak. Hola bien komplimendua egiten dut.
Mat : Aldi batentzat paso, bainan ez ahantz etxe huntako manatzale bakarra ni naizela. (Liliak ezartzen ditu leiho ondoan den untzian).
Eux : Ahal bezenbat biekin bakean bizi naiz.
Mat : Hori joko tzarra Euxebio. Eskuinetik dabilanarie ezkerrekoak harria botatzen dik . EZkerretik dabilanari eskuinekoak. Erdian gelditzen denari aldiz bi alderdikoek.
Eux : Hori da mendo huntako gaitza, gure nagusi zenari 7 aldiz entzuna dut.
Mat : Eta harriak aipatzen ditugunaz geroz, nolaz duzu burua lotua?
Eux : (mokanesa kenduz) Anjeli anderearen falta da...
Mat : Nere ahizpak harrikatu zaitu ?
Eux : Ez ez, bainan leihotik lili untzia erori zaijo !
Mat : Gaixua ! Beti holako ttuttula bat izan da, eta orai neska gazte horren arribatzeak harritzen du...
(Barnetik ageri da Anjeli kantuz, Strauss-en aire batean)
Eux : Ez duzu ezagutzen aire hori ?
Mat : Beti bere Strauss-ekin !
Eux : Bai bai, lili untzia erori zaiolarik, aire hortan berean ari zen.
Mat : Nun da orai Anjeli ?
Eux : Baxera egiten ari da !
Mat : Jainkoak lagun nezala ! (Oihuka) Anjeli ! (Barnetik gaitzeko arrabotsa bat, baxeraki batzu erortzen). (Matildek begiak estaltzen ditu bere eskuez).
Eux : Malerusa! Strauss edo delako horrek ez du sekulan bertzerik egin ! (Anjelik leihotik kampa behatzen du).
Mat : Zerbait erori da ?
Anj : Malerusa! Beharrik zombait untzi ba ziren zilharrezkoak ! Dena fini nuen eta heldu nintzan :

Mat : Otoi ez zazula deusik hunki barne huntan (Anjelik leihoa hesten du) . Eta zu, zoazi segidan ! Izenaz oroit zira ?

Eus : Margarita Luñan anderenoa.

Mat : Arta zazu ni banintz bezala. Edozoin galdeeri, arraposturik ez. Ixiltasun osoa.

Eux : Ez izan arangurarik hortan ! Nahi dutana ixilpean gordetzen ez bada ki ba nik ! Hori baizik ez dakit untsa egiten? Nagusiarekin ika sia... (Hori ertean ateratzen da. Ixtant baten buruan, zaldi joarea eta urratsa, Euxebio joana da. Anjeli sartzen da, beti bezala ahizpak bezala bezti)

Matilda eta Anjeli

Mat : Baina neska, noiz ikasi behar dun hire zain horien pixka bat kalmatzen ?

Anj : Esku debru hauk ditinat ! Hola naizelarik ez dakinat zer egin, xinaurritz beteak iduri.

Mat : Zer egin ? To hire galtzerkia, horrek eztituko hu.

Anj ; Oraikoa ez dakinat ba, lan handiegia hasia dugunez (josten hasten

Mat : Ez dun sekulan gertatzen dena uste bezain beldurgarri. Bota zak lanari eta utz gogoeta hoiak.

Anj : Baina ez dioiat ordea, gero ta beldurrago naun (lana utziz) Baina ohartzen haiz zer gertatuko den hemen, neska ergel hori etorriko denean ; eta jakinen duelarik zertarat ekar arazten dugun ?

Mat : Bai baina ez izi. Heldu den hori ez dun neska ergela. Mundu hunkako berri aintz dakien mediku bat dun. Ez dun batere izitzekorik ez lotsatzekorik.

Anj : Zer uste dun, ez dela estonatu ere ?

Mat ; Ez dinat hoinbertze erraiten. Lehen aldian elhar ikusiko dutenean baditakek pixka bat beldurtuko den eta berdin, lasterka espapatuko, baina, azkenean bihotza nagusitu eta, zernahi egin araziko dakogu.

Anj : Hire amets xoroak ! Neska horrek hemengo berri jakin bezain laster lekuak hustuko ditin. Ez dun zekonda bat ere egonen !

Mat : Ez dun ni bezain ongi ezagutzen.

Anj : Hik ezagutzen ?

Mat : Bere le tratik ageri din anima suhar baten jabe dela.

Anj : Bai, horren aintzinekoa ere medikuak zitunan eta ez tontoak, baina ez duk nehor aste bat ere egon !

Mat : Heek, gizon gizaizo batzu zitunan. Hau berriz neska hardita.

Anj ; Hainbat gaixteago ;

Mat : Ixo eta aski. Nik deliberatuari ez dik nihork ezetzik erranen.

Anj ; Nik ez dinat nere idein erraiteko dretxorik ?

Mat : Hi gazteago haiz.

Anj ; Gazteagoa ?

Mat : Bai, ni baino gazteago.

~~Anj : Eskolan ginehrik bai. Nik 9 urte, hik 14. Baina orai 5 urteen~~

- Anj : Eskolan ginelarik bai. Nik 9 urte, hik 14. Bainan orai 5 urteen diferentzia.
- Mat : (Kexu) Bost minutarena balitz ere berdin. Ahizpa zaharrena naun eta aski beraz.
- Anj : Bon... hola bada... (berriz josten hasten dāra. Mat.gaxoago).
- Mat : Ez ditun urteak bakarrik...Adinaz bertzalde badinat nik beste zerbait nere alde...Hi anderenoa baihaiz...
- Anj : Eta hi ez ?
- Mat : Ni ere bai, bainan beste era baterat. Jainko eta legearen aintzinean, andrea naun, emastea...
- Anj : Bai ; ezkondu eta zortzi egunen buruan senharra ehortzia. Aldi bat ere ikusi gabe... Hori dun zer nahi jakitea ?
- Mat : Zndako ez ? Nere senharra zenak ezkontzaren ezagutzarik ez badaut utzi ere?, utzi datan alarguntzaren ezagutzea, luzea baino luzeagoa.
- Anj : Bai ta arranda ederra gozatzeko.Ezkontza bezala ez dun zorientsu izan, bainan negozio bezala. Aste bateh emaztetza eta bizi guziko erretreta...
- Mat : Anjeli...
- Anj : Barkatu! (josten ari da...Ganberatik orenak jo egiten du. Anjeli izitua eskualde guzietarat so...Kantuz hasten da...)
- Mat : Utzi Strauss bakean betikotz (behin) !
- Anj : Eta hik ez dun aldi bat ere behatu bideari ? EZ haiz orhoitzen neska ergel hartaz ?
- Mat ; Bai, orai hura nian gogoan (Papotik letra atera eta lunetak jaunzten ditu). Hementxe dun bera den bezalakoa . Borondate handikoa , biozduna bere buru eta gogoen nagusi den neska ernea. Horra guk behar ginuena.
- Anj : Bainan nun ikusten ditun horiek denak ? 7 aldiz leitu dinat eta ez dinat holakorik ikusi !
- Mat : Hik hitzak erran nahi duteneri behatzeh dun eta nik letrak , hitzkiak erran nahi duteneri.
- Anj : Ez ahal gaitun dolutuko...
- Mat :Zer haiz beldur ?
- Anj : EZ dinat sorginkerietan konfientxia handirik . Ibili nintunan nere eskuetako lerroetan ene geroaren asmatzen...Erran zautatean ezkondu eta zorientsu izanen nintzela, etxea seme alabez betea, eta hala ondorioa... Iloba bat bakarrik eta den hura hiekin erdizka, eta gizeldi gizaldietan mutxurdin.
- Mat : (Lunetak kendu eta letra gordez): (Administradoria sartzen da. Roldan jauna, axeri ederra, eta paper zaharren berri untsa baino hobeki dakiena).

Matilda, Anjeli, eta Roldan

- Rol : (Harat hunat erabilki, kexu-kexua) Ez da posible. ez/ Nihundik ere. Erran zazue zuek ere ez dela posible...
- Mat : (kexu) Ez dakit zeri diozun, bainan zuri behatzen bada, egia ditake.
- Rol : Egia da beraz ? Arrotz bat etxe huntan sartzen zaukula ?
- Anj : Bai, zera !figure ahizpa hunek ezagutzen da, elgarrekin eskolan egonak balide bezala...
- Rol : Eta nork pentsatu du gauza hori ? Zer duzue, zentzua galdua ,? Erran duzue andere horri argi eta garbi zertarat helduz zen?
- Anj : Anderea ez, anderenoa...
- Rol : A ba anderenoa....Ainbat gaixtoago...Eta arraza hori gazte bati eskaintzea zuzen iduritzen zaitzue ?
- Mat : Zuk erakutsiko daukuzu zer den zuzen ala ez ?
- Rol : Bai...
- Mat : Alferretan ari zira. Zu gure diru zaintzalea zira eta besterik ez. Eta orai bakotxa okupa bedi bere aferetaz.

- Rol : (EZTiki) Halere , itzal handiko neska gazte bat bada, gaitz erdi.
Mat : Zukzeri diozu itzal haundikoa ?
Rol : Urteetan abantzatua...
Mat : Hortako ; hala hemen gu biak kasu hortan girenak...
Rol : Bere bizibidean untsa ikasia... argitua...
Anj : Bere izenaren aintzinean "de" ikusi bazinu, etzinuen holako haurkeriak errango.
Mat : Arrazoin duzu Anjeli.
Anj : Milesker Matilda.
Rol : Neri gogor egiteko bakarrik elgarren artean aditzen duzue. Betikoa da. Bainan ez da xuxen, holako kasuetan bozkatu behar da.
Mat : Egin dugu ta gehienek bala eman dute.
Rol : Nork ?
Mat : Gu biak. Ni eta nere ahizpa akort ez girenean, nere botzak biga balio ditu...
Rol : Hala beraz... Etxe huntan bazterrak errotzen ari direnez !
Mat : (Kexu) Aski hortan Ixo.. Zer erran nahi dute hitz horiek ?
Anj : Gure anaia burutik joan eta hil zela erran nahi duzu ?
Rol : /: Ez dut hori erran nahi, bainan bere burua xuxen duen batek ez zuen eginen hak egin duena bere semearekin.
Mat : (Kexu) Aski hortan otoi! Utz ditzazu orai lehengo ixtorioak, eta arrangura gaiten burasorik gabe den haur gaixo hortaz. Haur hori orai gure gain da eta ez dugu nehorren beharrik horren altxatzeko.
Rol : Eta nik ez hortan dretxorik ? Zuek aitaren arrebak zirezte ta ni amaren anaia.
Mat : (zorrotz) Ez da itz erdirik ere. Hemen parte bakarra, gurea da, gu...re...a... Amaren aldeko parterik hobe da ez aipatzea ere. Aditu ?
Rol : (irri maltzur batekin) Pon, ontsa da... Nik eskuak garbi ta kito...
Mat : Xuxen zira, diru zaintzale eta esku zikin, ez litake gisa...
Rol : Emeki anderea... NERE konduak xuxen dira, eta zure meneko nauzu.
(zaldi urratsa hurbiltzen ageri, xilintxa...)
Anj : (xutituz) ixo ! hala karrosa.
Rol : Hura da ?
Anj : Hura berbera (zalnu lanean hasten da).
Rol : Ni orai soberakina nauzu hemen eta banoa.
Mat : Arrazoin duzu... Duelako 40 arte hoitan ez duzu holako egiarik erran.
Rol : Milesker... (karrosa hurbilago).
Anj : Ni ere joaiten ahal naiz ?
Mat : Nihoiz izaitekotan orai da, ! (Begiak zerurat bihurtuz) Jauna egin bedi zure nahia! (Aneli ahizpa gaixoa, izitua, bere betiko kantuan ari da) Ixilik, Anjeli, ta xuti.
(Karrosa gelditzen da, Euxebio sartzen da, bi valisa eskuan, bidea erakutsiz Margarita-ri).
(Margarita hau, neska gazte pollita, unibersitadetik ateratzen da. Neska ernea...)/

Lehengoak, Margarita ta Euxebio.

- Eux : (jendeak presentatuz) Etxekanderea... beste etxekanderea.. jauna...
Marg : Egun on guzieri.
Mat : Ongi etorri etxe huntarat.. Lujan anderenoa.. Nere ahizpa Anjeli
Marg : Zer diozu?...
Mat : Roldan jauna... gure administradorea...
ROL : Ongi etorri...
(Matildak lunetak ezartzen ditu eta so egiten dio luzaz...)

- Mat : Harritzeko da... Aste bat idurikatu ondoan ez nuen uste hoin gazte eta maitagarriko neskatxa bat zinela.
- Marg : Milesker anderea. Horiek denak ez dira sobera izanen nere eginbideen betetzeko.
- Mat : Bihozdun eta goxoa uste izan zaitut bainan ez hoinbeste;...
- Marg : Eta eni ere iduritzen bihotz oneko jendeak zirestela denak...
- Mat : Beraz elgar lagunduko dugu ?
- Marg : Nahi baduzue oraitik beretik.
- Anj : (geldi geldia dagon Euxebiori) Zer ari zira hor ? Zertako ez ditutzu anderenoaren puska horiek sartzen ?
- Eux : Ba, ene iduri ez dela hemen luzaz geldituko, ta zertako balio du goiti ta beheiti erabiltzea ?
- Mat : Nehork ez dautzu zuri deusik galdegiten. Zoazi berehala...
- Eux : Ontsa da.(Balisak etxean sartzen ditu) ?
- Rol : Euxebiok gauzak xuxen ikusten ditu. Agerraldi hau ederki hasi da, bainan ikusi nahi nuke segida...
- Mat : EZduzu ez irri eginen. Ez duzu zure lantegian deus presaturik egiteko ?
- Rol : (Bere muntrari behatuz). Lujan anderenoa, eguerdi bost guti da, oren laurden baten burian baduzu train bat...Har zazu zure onetan....
(Eta ateratzen da... Margarita,estonatu da...).

Marga, Matilda, eta Anjeli :

- Marg : Jaun hori ez bisiki goxoa...
- Mat : Ez dako kasu egin behar. Bere bizi guzia xiiren erdian iragaiten du... bi eta bi lau direla...Gizaizoa...Nahi duzu bazkaldu ?
- Marg : Untsa bazaitzue, geroxago... Lehenik zuen muttiko ttipia nahi nuke ezagutu.
- Mat : Geroxago... Lehenik zombait galde egingo daukitzut...
- Marga : Galda ba. (Hiruak jartzen dira, Marga bi ahizpen parean, etsamina batean bezala. Matildak letra atera ta Margari geldi geldia so egiten dio).
- Mat : Aita ala ama zinuen maiteago ?
- Marg : Nola ?
- Mat : Errazu ahalgerik gabe.
- Marg : Holako galderik ez zait sekulan gogoratu.
- Mat : Behin ere ez ? Ait'amak galdu ditutzularik ere ez ?
- Marg / Sekulan. Ene burasoak ttipia nintzalarik hil dira... Elgar maite izan dute beti.
- Mat : Ezin sinetsia diteke, bainan zure hitza aski da.
- Marg : Barkatu, bainan zerbait ez dut untsa konprenitzen... ez ahal datazue zuek eni letraz etxe huntan lana eskaini ?
- Mat : Bai, eta hau da zure errepostua.
- Marg : Eta zertako beraz orduan itxura gabeko galde horiek ? Ni ez nauzue ume zurtz baten hazterate eta eskolatzerat ekar arazia ?
- Mat : Bai.
- Marg : Nun da beraz haurra ?
- Mat : Orai etorriko da. Harmarekin goizik joana da mendirat.
- Marg : (izitua). Harmarekin bera, bakarrik ?
- Mat : Bai, Labri eta Xuri-rekin.
- Marg : Hala ere... zer dira horiek, mutillak ?
- Anj : Ez ba, bi xakur.
- Marg : EZ da posible... Eta zueri untsa zaitzue; haurrak bakarrik uztea harma batekin ?
- Mat : Aita ihiztari ona zuen eta harekin ikasia du untsa harmaren erabiltzen. Ez da hortan harritzekorik !

- Anj : Buru hausterik handiena gertatu zauku, umezurtz gelditu denean
Mutiko horren bizi errogaben gidatzen, salbatzen, lagundu
behar gaituzu!
- Marg : Bizia ? Ni ez naiz gero medikua ! Irakaslea naiz !
- Mat : Hortarik hasi behar da... lehenik ikasi irakurtzen eta
izkiriatzten... liburua... eta gero biziari joan zaizkion
mixterioak...
- Anj : Badakizu, mendian lagunik gabe hazi mutiko bat da.
- Marg : Bai, konprenitzen dut... Zure haurra ahal da ?
- Anj : Nerea ? Ez. Ni, anderenoa nauzu.
- Marg : Barkatu... (Matildari) Zurea beraz ?
- Mat : EZ ete ere. Ni ere, ezkondu izanik ere, anderenoa nauzu.
- Marg : Ez dut konprenitzen...
- Anj : Gertatzen direnak dira. Nere ahizpak zortzi egun egin zituen
ezkonduta bainan ez zuen izaterik izan.
- Marg : Bainan jakiten ahal ditake norena den mutiko baxtert hori ?
- Mat : Nork erran dautzu baxterta dela ?
- Anj : Horren aita gure anai gizaizoa zen.
- Marg : Eta ama ?
- Mat : Atsulutuki nahi duzu hura aipa dezagun ?
- Marg : Nahiago baduzue ixilik utzi, bego. Hura ere hila ?
- Mat : Bai ta ere.
- Anj : Ez zen behar bezalako emaztea... emakume zirtzila... Bainan
ez du balio gehiago aipatzea.
- Marg : Bego beraz hortan. Eta zuen mutiko hortaz arras arrangura-
-tuak zaudezte. Zer du bada?
- Anj : Arras inoranta da.
- Marg : Badakit hori... Eta zer gehiago ?
- Mat : Izigarria da. Zanpatu eta ere ez da umilduko. Debrua bezain
galgaria da, arrunt bihurria.
- Marg : Al... ! Harritua nago. Eta ni baino lehen izan ahal du
eraskalerik ?
- Anj : Bai, hiru ta hiruk gizonak... Dohakabeak !
- Mat : Lehenak goxe goxo hartu zuen, eztituko zuela, bainan bereala
-xe etsitu zuen. Bigarrenak arrazoinka bildu nahi ukan zuen,
bainan aste baten buruko etsitu zuen harek ere.
- Anj : Irugarrenak, indarraz gaitzeko gaitzeko asmoak hartu zituen;
eta orduan hasi zen gure malurra... Ikusten duzu etxe gaineko
hura ? Handik behera bota zuen...
- Marg : Ezin sinetsia da... Handik behera botatu irakasleak !
- Anj : Ez, irakaslea haurrak !
- Marg : (trenpu txartzen ari) polliki, polliki, ez nadin burutik
joan... Haurrak irakaslea bota zuela leiho hortarik... Orduan,
zombat urte ditu zuen haur horrek ?
- Mat : (ezti-eztia) Hogoi ta sei...
- Marg : (punpe batez xutitzen da) Nola ? (begiak gordez eskuekin)
Barkatu anderea, nik uste ez dut untsa konprenitu... Sei
urte erran duzu ?
- Mat : Hogoi ta sei... (Margak balantza egiten du eta fotilean
erortzen)
- Anj : (kantuz hasten da, bere betiko aire berean)
- Marg : Eta hortarat ekar-arazia nauzue ? (bere muntrari behatuz)
treinaren tenorea noiz dela erran dautazue ?
- Mat : Otoi, urrikal zaitte gutaz !
- Anj : Entzun zazu bada ongi !
- Marg : Besterik egin ahal dut ba ? Nik ez diot lan hari egin !
(Oihuka) Nun dira nere balisak ? Fite !
(bi ahizpek inguratzen dute)
- Mat : Ezagut zazu otoi, zirt eta zart egin baino lehen...
- Marg : Zertako ? Leitzen eta izkiriatzten ikasi gabe adin hortarat
arribatu den mutikoa, zer izan ditake ? Eria ? Edo burutik
maingu ?
- Mat : Ez, ez da hala, zentzua xuxer du...

Marg : Zer da beraz ? Arrunt basa ?
 Anj : Ez da hala...Aitak du hola hazia.
 Mat : Mendi mendietan aitarekin bakarrik; denetarik urrun...
 Marg : Sofritzen dut, bainan ni ez naiz hunarat errekerien entzuterat
 eterria .

Lehengoak eta Euxebio

Eux : (sartuz) Zer duzue hola oihuka ?(urrunerat tiroa aditzen da)
 Anj : Entzun duzue ?Horra bere agurra !
 Mat : Zu bakarrik, zozzi haren biderat (Margarita-ri)
 Marg : Nor? Ni? Su ta gar tiroka ari den erro korri ? Milesker
 anderea ! Hortakotz ez duzue, irakasle baten beharrik, habe
 duzue ihiztari bat !
 (Margarita pailatzen da partitzerat). Goazen !
 Mat : (aintzinean jarriz). Egun bat bakarrik otoi, egun bat !
 Anj : Edo bederen oren bat... Zazpi aldiz amets egin dugun plazer
 hori ez ehal daukuzu errefusatuko ? Ez duzu dretxorik !
 Mat : Bai, gazte horrek ez du sekulan ikusi^{zu} bezalako neska gazte
 ta pollitik !
 Marg : Bai, ta pentsu duzue zer gerta litakeen hemen, horrek ni
 haur buruz buru hatxemateh banintu ?
 Anj : Gauza ederrena, zoragarriena ! Nehork sekulan ikusi ez duen
 munduko gertakaria naski !
 Mat : Lehenbizikotz neskatxa ikusten duen gizona, lehen aldian
 iguzkiaren sortzea ikusten duen bezala da, belaunikatzen da...
 (zaldi galopa gero ta hurbilago. Berriz ere tiroa, zakurren
 ihausia ta Pauloren irrintzina).
 Anj : Oraikoa hemen dugu !
 (Pauloren oihuak kanpotik).
 Marg : (izitua) Zakurrik ez, otoi, zakurrik ez !
 Eux : (zakurren geldiarazterat abiatzen da). Geldi..Labri; Couché..
 Paulo : (kanpoan) Harrapa zak bestia, Euxebio...Madarikatu hori...
 (Paulo sartzen da, harma bizkarrean...Mutiko lodi ta azkarra...
 ileak nahasiak eta izerdi...Zaldizko oinetako luzeekin, gerian
 kartuxa andana bat).

Matilda, Anjeli; Marga ta Paulo.

Paul : Izeba Anjelina, gora ! Izeba Matilda, aupa ! Hiru oren zaldiz
 horren ondotik, eta azkenean hatxeman dut, bada ! (Izeba
 bakotxa besotah har-eta itzulikarazten ditu).
 Anj : Bainan zer harrapatu duzu?
 Paul : Otso umea, bainan zerbait gusta zait ! Hak garbituak zituen
 hamalau ardi ta gure xakur umea. Larrutuko dugu, eta larria
 bortan dilingan ezarriko. (Kartux uhala kentzen du ta botatzen
 du eta Matildak biltzen du airean. Anjeluk berdin zakua). ETA
 ene zakurren ikusi bazinituen lasterka ! (Harmabotatzen du,
 ta Margaritak, harritua harrapatzen du). Aija..Aijalalala...
 (Bet betan ohartzen da norbait baduela bere alderdian. Pixka
 bat gibelatay eta so jartzen zaio...). Nor da hau ?
 Mat : Margarita Lujan anderenoa.
 Marg : (dardaraz, harritua). Zer diozu ?
 Paul : (EZ dako neska gazteari kasu egiten ere.Hari bizkarrez dagola
 berriz lotzen da solasean bere izebekin). Ikusi behar zinuen
 egun gure zakur umeen lasterak...mendietan gaindi...egun
 guzia...Ez ditut aspaldian hoin erne ikusi...(Ixtant bat
 ixilik egon ondora) Zertarat heldu da hau hunarat ?
 Mat : Margarita anderenoa, zure irakasle berria da...
 Paul : Ez ! Berriz ere irakaslea kori ?

Anj : Paulo, mintza zaite poliki. Ez da gisa irakasle bati "hori" erraitea...

Paul : Ja, ja (Besotik Marga hartzen du eta tiratuz). Zauri hunarat... Ikusten duzu gain hartako leihotura?

Marg : Ba, ba, ez duzu erté beharrik, denen berri badakitu...

Paul : A bai ! Nerekin bakean bizi nahi baduzu, badakitu beraz nola joka... Bi adixkide... Ez irakasle ta.. Adi zan untsa, hitz handi ta azpi joko horiek ez aipa sekulan (Berriz oixtiko sujet beraz). Goiz aldean zen... eta ene zakurrek zerbait senditu dute ta...

Mat : Utz kitzu orai zure otso ta zakur ixtorioak. Hemendik aintzina zure ixtorioak andereno horrekin erabiliko ditutzu...

Paul : Eta zer erran behar dakot ?

Anj : Ez dakit ba nik... Untsa so egin dakozu ?

Paul : Ta zer ba, bestek ez duten zerbait bagote du?

Anj : Horu zuk erranen duzu gero...

Paul : (Hurbiletik untsa so eginez). Galtzekin balitz ez litake gaizki.

Mat : Paulo !

Marg : Utzi anderea... Hola ezagutuko dut mutiko hau...

Anj : Eta so egin dikiotzu untsa begiak ?

Paul : Nola ez ba ! Biga ditu !

Lehenkoak eta Euxebio

Eux : Nagusia, zakurra odol husten ari zaitzu, aztapar ukaldi bat bildu du beharri sahatsean...

Paul : Segidan joan naiz. Salboi urarekin garbituko dugu. (Euxebio doa).

Mat : Euxebiok garbituko du. Utzi bere gisa zure zakurrak eta egin entrada anderenoari...

Paul : Zendako ? Irakaslea untsa da, zakurra aldiz odol husten ari...

Marg : Egia duzu. So egizu, nik aizina dut.

Paul : Banoak berehala (kanporat doa ta geldituz) gurekin bazkalduko haiz ?

Marg : Ez dakit ba, zuk nahi baduzu...

Paul : Neri berdin zaidan. Mahia ez dun ttipia ta hiretako izaneh dun ausarki lekua. Zer dun izena ?

Marg : Margarita.

Paul : Luzegi. Hemen gelditzekotan, Marga deituko hitut.

Marg : Hola untsa bazaitzu ?

Paul : Hemendi heietan izanen haizelarik ta ni hemendik oihuka, nola erran nezake Mar- ga- ri- ta - Izen luze horiek ez dituk erretxak. Hobe ditik laburrak (Eskuak ahoan, ezarriz, oihu bat egiten du). : Mar - gaaa... ! Zer iduritzen zaun ?

Marg : Zuk nahi bezala

Paul : Nik holako emazteak ditinat maite... umilak... (gainetik behera irri batekin so egiten dio). Sarri arte... (ateratzen da).

Matilda, Anjeli ta Marga.

Mat : Barkatu behar dakozu.

Marg : (muitu gabe bortatik begira gelditzen zaio). Harritzeko bada...

Mat : Izitu ahal zaitu ?

Marg : Bai zera ! Gizon baten behakoak ez nau sekula hoinbertze gustatu. Nere bizi guzian ikusi dutan xarmerik ederrena. Gizon horren begi garbiak !

Mat : Hogoi urte hoiten han gainean, mendiko etxe batean nehor ikusi gabe aita bakarrik, egona da...

- Marg : Eta aita nolaz egongi zen han ? Burua galdua zuen ala ?
(bi ahizpak elgarri, se- begiratu eta buruak makurtzen dituzte).
- Mat : Bai andrea bai. Ez nion nebori holakorik erran, bainan egia da.
- Marg : Zorua ?
- Mat : Bihotzez maite zuen emaztearen saldukeriak burutik egin arazi zion.
- Marg : Zer zen, maitasunez zoratu ? Eta ama ?
- Anj : Irakurgai ergelek burua arindu ta amets txoroz betea, arras galdua zen.
- Mat : Zuk ez dakizu zer sofrikarioak igan zituen gizonak; hogoi gauez nigarrez emazteari deika. Burua galtzekoa zen...Eta egun batez ixilik, lo zagon haurra hartu zuen ta...
- Marg : Bainan nola ez zinioten haurra hartu ?
- Mat : Ezin izan ginuen : "Seme hau nerea da, nerea bakar bakarra, garbi garbia biziko da, liburu ta emazterik gabe. Abere basa nahi badizue bainan abere zoriontsua ". Ez zagon ez arras burutik nahasia.
- Marg : Hasteko erro aldi hartan, pasa. Bainan zombait urteen buruan nolaz ez dakozue legez bederen kendu ?
- Anj : Ez da aita baten indarra duen legerik. Bere hura galdu baino zer nahi eginen zuen.
- Mat : Joanak joan, orai badazkitzu gure segeretu guziak. Orai entseia gaiten beraz mutiko horren bidearen xuxentzerat.
- Marg : Aise da erraiten. Zuek uste duzue zerbait egiten ahal dutala
- Mat : Gure esperantza guzia zutan dugu .
- Anj : Eta zuk baduzu esperantza pixka bat ?
- Marg : Nik dakita... gogoetan ari nintzan.(Bat betan) Utz nezazute gaztearekin bakarrik...
- Diak : Milesker anderenoa, milesker...
- Mat : Zuen puska hauk joan ditut zure ganberarat ?
- Marg : Bai, joan zkitzu, bai...
(Diak joan dira, puskek harturik. Marga gelditzen da, bizkarrez, liburu bat harturik leitzen ari bezala. Paulo sartzen da, sagar bat janez. Neskari luzaz behatzen dio ixilik. Txistu bat egiten dio, berriz beste bat, bainan alferrik. Orduan erhiak ahoan ezarriz artzain xixtu lyze bat egiten dio. Margak jauzi bat egiten du ta itzultzen da).

Marga ta Paulo.

- Marg : Barkatu; irakurtzen ari nintzan eta ez nintzan ohartzen.
- Paul : Gezurra... Begi xokoarekin so egiten huen eta ez haizela ohartu ? Nerekin garbi joka hadi, bestenaz...
- Marg : Egia duzu, bainan ez nakien nola has. Xakurra hobeki da ?
- Paul : Ezagutzen ez duan zakur ume bat hiri ibual zaun. Zertako galde hori ?
- Marg : Zuretzat gauza handia delakoan. Zauri handia du ?
- Paul : Ez dun gauza handia. Ozpin eta gatzez ederki garbitu zionat eta berehala azkartu dun .
- Marg : Eta ez du ihausirik egin ?
- Paul : Abereak hiltzen ditun edo sendatzen; bainan beti ixilik, ikas zan hori. (Sagarrari kosk eginez). Nahi dun ?
- Marg : Ez, milesker, gero, bazkal ondoan.
- Paul : (Margaren ondoan lurrean jartzen da. Irriz noiztenka behatzen dio). Tia;;;Tia... Tia... ixilla; goxoa...ta irakasle zira beraz...
- Marg : Nere ofizioa da... Ez zaitzu gustatzen ?
- Paul : Faltsukeriarik argi ta garbi hobe da jokatzea... Irakasleak denak berdinak zirezte, beti manatzen, bainan etxe huntan ez dun hori legea..Etxe huntan, ni naun nagusia gero !
- Marg : Eta biek elgar untsa aditzen baginu ?

- Paul : Nola?
- Marg : Nagusi orde, bi adixkide on izanez.
- Paul : Arrazoin ahula. Adixkideak berdinak izan behar dine, ta ez beldur elgarri begietarat so egiteko. Nik hiri so egiten dutalarik, hik begiak apaltzen ditun, eta gainerat emaztea haiz.
- Marg : Eta emazte izaita, zer da gaizki ?
- Paul : Gure aitak baietz zioian. Eta hak bazakian beti zer erraiten zuen.
- Marg : Nik ere erran nezake beste hoinbeste gizonentzat bainan ez ginuke bat ez besteak arrazoin. Ez ahal duzu zure burua arras bakar aurkitzen ?
- Paul : Adizan, neri ez gehiago sekulan "zu" ka mintza. Ni beti "hi" izaun naun, eta "zu" erten dukalarik iduritzen zaitak bertze norbaitekin ari haizela solasean. Aditzen dun ?
- Marg : Hik nahi bezala.
- Paul : Nik hola maite (Margaren belaunen gainean bermatuz xutitzen da)
- Marg : Gu adixkide onak izanen gaityk...
- Paul : Ez naun enuxent bat ! Beste irakasleak ere hola hasi zitunan.. Goxoki, bizkarrean peekatuz, ta gero...danba...grammatika...diktea...kalkula...Geroztik mesfiatzen nun.
- Marg : Nik ez deat erakutsiko nahi dukanik baizik. Hiretzat lagun bat izanen nauk bakarrik.
- Paul : Bakartasuna ez dun gauza txarra..eta orai usatua nun
- Marg : Bainan lehen aitarekin bizi hintzan.
- Paul : A hori ba ! Harekin ez nian beste beharrik. Orai berriz egunak luzexko iduritzen zaitak.
- Marg : Ttipian ere ez duk adixkiderik izan ?
- Paul : Lagun bat, bai."Begi eder", begi dirdirantak...hiren berdinak zitian...
- Marg : Zer zen, neska ?
- Paul : Ez, basaahuntza. Urte osoan gurekin bizi izan dun... udaberria jin arte, bildotsa bezain umil.
- Marg : Eta udeberrian ez ?
- Paul : Ez ahal dakin zer gertatzen den udaberrian gain hoietan ?
- Marg : Ez nauk behin ere izan mendietan.
- Paul : Abereak, haize beroa ~~xxxx~~ usainka hasten denean, debekatua zion hiltzea. Orduan, "Begi-ederrek"hezia igan eta eskapatu zian, bururik itzuli gabe ere.
- Marg : Konprenitzen diat.
- Paul : Zer konprenitu behar dun hik, ez dun sekulan basaahuntzik ikusihere bizi guzian...(Amentsetan) Bai zoin ederrak ilargia beteko gau heikk ! Abere arrak marruka ta intzirika bai ta arkaitz artean buiuka. Geroztik "begi eder" ez dinat sekulan bakarrik ikusi... Orai ere, lehen bezain ezti? nun ote da, zaintzen dituela bere umeak ? (Ixtant bat ixilik)Eta hik, zonbat seme-alaba ditun ?
- Marg : (galde horrek nahasia) Ni, bat ere ez...
- Paul : Harritzeko dun. Ta zergatik ?
- Marg : Neskato gazte neizelakotz...
- Paul : Alta aski handi haiz...Zer egin duk beraz orai artio ?
- Marg : Eskola handi batean, ikasle...
- Paul : Eta neri ikasteko ekarria haute hunarat? Hik uste dun erakusten ahal datakala nik ikusi ta ikasi dutan erdia balio duenik ?
- Marg : Nork dakik ? Liburuetan ere baduk asko gauza eder ikasteko...
- Paul : (liburu bat mahi gaisetrik hartuz). Hunek zer zion ?
- Marg : Erromanoen ixtorio zaharrak aipatzen ditik.
- Paul : Eta hau berriz, zer da ?
- Marg : Horiek pertsak dituk, entzutek...
- Paul : (Jauzi batez mahainaren gainean jartzen da, bi zangoak k kurutzean). Hea irakur-zak zerbait...

- Marg : (Argi irakurtzen du). (Hemen irakurtzen ahal dira bi pertsu..)
Zer diok horietaz ?
- Paul : Harrigarri da ! Zer gauza ederrak. (mahaitik jautsiz)
Nun dira horiek guziak ?
- Marg : Hor .
- Paul : Hor ? Nork eginak ?
- Marg : Ixkribatzaile handi batek: Lizardi jaunak...
- Paul : Errazkik berriz polliki polliki. (Bertsu horien entzuteko,
Paulo jartzen da neskaren ondo ondoan).
- Marg : Entzuteko hoin hurbil behar duk jarri ?
- Paul : Ez denat minik egiten !
- Marg : Ez bainan nik hiri egiteko beldur !
- Paul : Ez inketa ene gatik. Irakur zan berriz. (Margak berriz esaten
ditu bainan buruz...Eta Paulok Margaren ondotik erraiten ditu
zonbait pertsu).
- Marg : Orain untsa ikasi dituk ?
- Paul : Oraiko huntan baietz uste dinat. (xuti ta liburua hartzen du)
Ez zukanergela hori izkiriatu zuena. Eta liburu guzian holako
gauza ederrak ditun ?
- Marg : Bai, oso osoan .
- Paul : Zer domaia gure aita ez baite bizi! harek ere gogotik entzunin
zitian . Hik ere bai ?
- Marg : 7 aldiz irakurtia diat...
- Paul : Orduan nik ere beharko diat ikasi... irakurtzen.
- Marg : Mila esker Paulo.
- Paul : Geazen emeki ... liburu huntan ba ote da hitz handirik ?
- Marg : (irriz)Batere ez. Ixkribatzaileek ez die hein beharrik.
- Paul : Hobe. Bainan kasu, leitzen ikasiko dinat, bainan
izkiriutzen ez !
- Marg : Zendako ez bada?
- Paul : Liburu hori egin zuenak bezain ederki egiten erakutsiko
datan ?
- Marg : Ez hoin ongi ez naski...
- Paul : Hola ez egitekotan, bego bere gisa.
- Marg : Ez dik belio beratz hemen egon nadien
- Paul : (kexu) Zer erran nahi dun? Joan nahi dukala ?
- Marg : Egun es paski. Bainan bihar basitekek, egun batez beharko din
diat ...
- Paul : (Kexu) Orduan zretako etorria hais ? Joaitekotan hobe
dun joaitea orai segidan...
- Marg : Ez naukhortan ari. Bainan ene plazerrik handiena litakek
hiri ixkribatzen ikastea.
- Paul : Untsa dun. Erakutsi eidan izkiriutzen.
- Marg : Berehala hasten gaituk ?
- Paul : Ez... Egungo aski gauza berri...
- Marg : Egia... Hitzeman dezagun itzaz... aita... ta menditar bizitaz
- Paul : Bai, gure aitaz... Ezagutu izan bahuen... Gizon ona, xuxena
ederra... Harekin ikasi dinat asko gauza ... Egun osoak zaldiz
elgarrekin traka traka galepan. Iguzkia sartu eta, belar
erdian etzaten gintian (lurrean etzaten da) holaxe, ahoz gora
Jainkoaren ohe goxoan, gauari ongi etorria eginez. Aitak
erakutsi daztek izarren izenak : Artizarra ta hiru ardiak
ta... Banoti eman zion izena Adelafide. Adelafide izeneko
izarrik ba ote da ?
- Marg : Ez dakiat. Ba naski. .
- Paul : Zer ez dakikala ? Hoinbertze ikasi balinbadun, erran garbiki..
- Marg : Ez dakiat... Barka zak...
- Paul : (Besotik hartuz). Ez zaitut behatu begietan. (Begitarterat
behatur. Eta goxoki). Bainan zer dukun? Negarrez ari haiz?
Gaixtakeria zerbait egin dinat ?
- Marg : Ez deusik ere... (xutitzen da). Nere buruarekin ari nindukan.
Ederra zaitak orai bizitzea... lehen uste baino ederragoa...
Eta ni nor nauk, ez dakiat xakurren sendatzer, ez diat mendia eza-
gutzen ez dakiat izarren izenik... eta hala ere ni erakutsi
nahiz etorria?

- Paul : Egia erran : hori huen bakarra ?
Marg : Bai hori bakarrik...ta orai utz nezak...Ez haiz garbitzerat joan beharra ?
Paul : Eta hik badakin igerika ?
Marg : Doi doia. Zergatik bada ?
Paul : Erreka hemendik bost minutetan dun. Goazen.
Marg : Milesker. Ura izotza bezain hotza ditakek.
Paul : Bai, ez nun ez ur beroan mainatzen nere izebak bezala.
Marg : Ez diat ekarri ur jantzirik ere.
Paul : Zertako ?
Marg : Janzteko.Ez nauk larru has mainatuko...
Paul : ETA zergatik ez hintazke maina buluzirik ?Ez ahal haiz ba gazte, eder eta sano ?
Marg : Hala izanik ere, ez duk ene gatik. Hire gatik duk.
Paul : Hori beltza... Ez haizela ene gatik axola !
Marg : Geroxago ikusiko diuk. Hail bakarrik. Gero arte Paul !
(Paulo etxe aldera abiatzen da, eta ezkerretara xori kantua aditsen da).
Paul : Ixo; entzuten dun ?
Marg : Zoragarri ! Zer da, erresinoleta ?
Paul : Erresinola ? Ja, ja !Bainan zer debru erakutsi dine hiri eskola hortan ? Karnaba dun...
Marg : Eta ?
Paul : Ba ahal dakin zer erraiten duen ? Entzun zan.
Ixo ! Ezin diteke, ezin !
Marg : Bainan hik konprenitzen duk zer erran nahi duen ?
Paul : Bai, ezin hobeki... Amodiozko kantua da...Bainan ez da oraino sasoa...(xoria ixildu ta) halere bat bateko bero hau...
ta?...haize lodi bero hau to...(lepra luzatuz, airea usaintzen du).Nundik heldu da usain on hau ?
Marg : Etsakiat...Adar horiek segur ere...
Paul : (lili untziari hurbilduz) Mertzika loretan;... (Airoski) ker k karnabak errazoin dik, huna udaberria.
Marg : Udaberria dugu ? (gibelka joarez; beldur).
Paul : Orai ohartu naun... usain on hori...ta begitarte eder hori...
Marg : Zer begi ?
Paul : Hireak. Lehen ez dinat erran nahi izan...bainan ez dinat nihun hoin ederrik ikusi...(liliak besotan hartuz). Utz nezan hurbiletik behatzerat...
Marg : (mahi gibelean gordez). Milesker Paulo, bainan orai hail mainatzerat. Trenpa aldi batek on eginen dauk.
Paul : Hunarat geroz ez. Izaitekotz biak elgarrekin.(hurbiltzen da...)
Marg : Otoi, Paulo... Nun uste duk girela ?(eskapatzerat doa).
Paul : Geldirik !
Marg : Garrasiaka hasiko nauk !
Paul : Geldirik zionat...(bereganat tiraturik, musu luze bat emaiten dio. Gero utzi eta). Orai oiuhu izan nahi badun, eta ikas zan behin betiko gizona dela hemen manatzen duena ! (bere paltoa kenduz). Errekan izanen naun...
Marg : (oihuka gibeletik). Basa...Basurdia...!
((bi izebak sartzen dira iziturik)
Marga, Matilda ta Anjeli
Anj : Ez deusik erran, dena ikusi dugu.
Mat : Eer basa.Ausarta izan behar du hola indarrean musu emaiteko!
Marg : (begiratu ere gabe,errekarat so)Ez,ez daki oraino musu emaiten, piko bat egin dautezpainean.
Mat : Piko bat...Jainko maitea...(ahuldua,fotilean erortzen da).
Anj : Gaixoa...(oihu eginez).Eusebio!ekarkitzu anderenoaren balisak !
Marg : Ez,sekulan!Orai hemen geldituko naiz!Ez dakit hemen nik dakidaten beharra baden,bainan nik badut asko gauza ikasteko. (berriz oixtian bezala xoriaren kantua).Bai xori ttipi bai, bazakinat, udaberri !(kampotik Pauloren oihoa) Margaaaa !
Marg : (alegeraki aur egiten dio). Pauloooo!ago ixtant bat,heldu nuk. (Eta lasterka ateratzen da).

Bigarren egintza .

Handik zombait hilabeteren buruan, etxe barnea, ederki ~~z~~ apaindua. Fotil eder batzu, ximinei gainean kobreak... Udazkeneko ilunbea, Anjeli, liburuz eta tresnaz betea den mahai baten aintzinean, goxoki eta eztiki hartzen ditu ~~R~~ Roldan jaunak bortizki erten dazkonak. Anjelic irakurtzen ditu Paulo-ren kaierak.

Izeba Anjeli ta Roldan jauna

- Rol : Ez eta ez ! Hau ginuen orai eskas !...Hünen onartzeko izan behar nuke beneditanoa edo frantziskanoa, baina ez dut nik martir izaitzeko bokazionerik !
- Anj : (extiki) Untsa, untsa, ez kexa otoi !
- Rol : Erraiten nuen bezala, ene hitzak ez du etxe huntan deusen baliorik. Hobekiena litake denen uztea ta partitzea !
- Anj : Bai, jauna bai, ederki !
- Rol : Anjeli; entzun ~~duzu~~ zer erran dutan ?
- Anj : Barkatu ! zer zinion ?
- Rol : Oren erdi huntan ari nautzu utzi beharko zaituztedala. Baina gure mutiko horren kaierak dituzularik eskuan, ez duzu deuserik kasu egiten, lur ikara izan eta ere.
- Anj : Zer diozu ? Nunbait lur ikara izan da ?
- Rol : Orai arte ez, baina hola segitzen bada, gutien ustea... ukanen dugu...
- Anj : Ez ez ! Paulo baditake puxka bat errota deh, baina ez duzu ukatuko mutiko xoragarriena dela ?
- Rol : Xoragarria ahal zaitzu zuri ene bulegoan zaldiz sartzen dena ?
- Anj : Hori ere egin du ? Debrua !
- Rol : Eta lehalditik jeiki arazten nau egun guziz harri kixkerrat botatuz leihorat. Ez da gehiago berina bat osorik !
- Anj : Eizaixoa ! Haurkeriatik ez da sekulan gelditu...Baina ohart zaitte zu haurra zinelarik ez duzu sekulan berinarik hautsi ?
- Rol : Baditake anderea. Baina nik haurrean ez nintuen 26 urte... Eta harri botatzea bakarrik balitz ?
- Anj : Beste zerbaite egin dautzu oraino ?
- Rol : Bere irrintzina basa horiek ? Bere mintzatzeko manera ! Zernahi erten du jendeari !
- Anj : Hori ba, hortan ez du konbertitzerik. Zutan ari delarik ezin erranaz diogu "administradorea". "Azeri maltzurra" dio beti.
- Rol : Ba dakit ba heri...(trixte) Ez nu ikusten ahal ere...Zertake hori ?
- Anj : (kaierari behatuz loriatua) Zer gauza pollita !
- Rol : Hè è
- Anj : Zer izkirio pollita?... Eta horra hementxe Marga-ren burua Paulok berak egina...Errazu, "Europa" majuscularekin izkiriatu behar ote da ?
- Rol : Bai bixtan da.
- Anj : Hala iduritzen zautan ba. Eta Amerika ere ?
- Rol : Zer da, Amerika Europa baino ttipiago ?
- Anj : So egizu hunarat. Amerika ta Europa letra ttipiz izkiriutzen ditu. Neska gaztearen izena aldiz beti Majuscula handi batekin. Ba ahal dakizu zer erran nahi duen horrek ?
- Rol : Nola ez ba ? Hiru huts egin dituela...
- Anj : gure mutikoa uros da.
- Rol : Zortzi hilabete andereno hori gure etxen sartua dela...Zer egin du ? Paulo bezain basa billakatu... beti ihizin dabila eta amarain errekan !
- Anj : Anderenoa irakaslea da ta badaki nehorik baino hobeki zer ari den. Kontseilu on bat nahi baduzu aditu, ez zaitela okupa bertzeen aferetaz eta zoazi zure xifre eta adizionetarat

- Rol : Nere aferen jabe naizela uste duzu ? Bai to ! Ene xifretan ere norbaitek sudurra sartua du !
- Anj : Eta nork ? Anderenoak ?
- Rol : Ez ez, bertze basa horrek; aspaldi huntan nere lantegian sartu eta ari da zoko miatzen. Nahi nuke jakin zer ondotik dabilan !
- Anj : (trufa irriz). Badakit ba zer duen. Horrek zortzi hilabetez ikasi du basa horrek zuk zure bizian ikasi duzun bezainbat, eta orai zure konduak ikusi nahi ditu, eta zu beldur kondu xuxenen agertzeko ! Ez da hala ?
- Rol : Orai hemen biziteko behar da kurra handia, eta hobekienik litake lekuen hustea.
- Anj : Hori ene ahizpari erran behar zinuke...
- Rol : (Kopetako izerdia kenduz). Ba, ez da gauza bera zure ahizparekin gauza horien aipatzea... (Matilda sartzen da, lili andana batekin eta lili untzian ezartzen).

Anjeli, Roldan ta Matilda

- Mat : Aratsalde on... Orai ere kalapitan ?
- Rol : Ez ba, biak akort ginen.
- Anj : Pauloren bizitzeko moldea ez zaio gustatzen.
- Mat : Zer du guti ikasten ?
- Rol : Ikasteaz, ikasi du...(Bortizki). Bainan, nork manatzen du orai etxe huntan ? Paulok. Eta Paulo nork manatzen du ? Nundik heldu den nehork ez dakien batek !
- Mat : (Kolera handian, lore untziarekin eskainiz). Xantxa duzu lore untzi hau karioa baita... Bertzenaz !!!

Lehengoak eta Euxebio

- Eux : Etxekanderea Roldan jauna hor da.
- Mat : (estonatu) Roldan ? Zoin Roldan ?
- Eux : Iloba Roldan, jaunaren semea...
- Mat : Horra aita diru zaintzale, eta semea legex gizon. Horra biak gure ontasunez jabetu nahiz. (Julio gaztea, apaindua, sartzen da, halako gezur irri batekin).

Matilde, Roldan, Anjeli ta Julio

- Jul : Hauk zoriona ! Itsas untzi eta hoteletako biziak ez du etxe huntako bizi goxoa balio ! (aita du hurbilena ta besarkatzen du). Nola gira ?
- Rol : Inkili mankala, seme !
- Jul : Ja, Anjeli maitea ! Beti bezain gazte ta airos !
- Anj : Milesker...
- Jul : Izeba Matilda...(eskua luzatzen dio, ta Matildak bizkar gibelean gorde berea).
- Mat : Hobe duzu "izeba" kentzea. Matilda bakarrik.
- Jul : Oraino minbera ? Ta noiz arte ?
- Mat : Nigatik beiti arte...
- Jul : Henendik pasatzen nintzan ta bi hitz erran nintuela...
- Mat : Hik bi hitz erraiten ditugularik, bat baduk sobera. Nik buruko min bat badiat ta gaur ni gabe beharko duzue afaldu.
- Anj : Ni ere gaitzeko buruko min batekin naiz.
- Mat : Ez hik gibelak~~ta~~ dun eri. Hobeki johan zaun...Jaunak... (Ki ahizpak xutiturik ateratzen dira. Juliok so egiten diote eta zigarroa piztuz ahoan ezartzen).

Roldan eta Julio

- Jul : Basa ahate paria (oihuka) egun batez ni isanen naun ba otxe huntan ta zuekanpoan! (aitaren ganat itzuliz) eta zer diozu ~~ba~~ beraz ?
- Rol : Berri seriosak. Ukan duk nere letra?

- Jul : Bai ta harritu eta utzi dut. Zer duzu ba holako presa ? Ez duzu errango bi neska tzar zozo hoiek izitsen zaituztela ?
- Rol : Hoiek baino lanjerosago duk Paulo.
- Jul : Bere izenaren izkiriatsen ez dakien basa hori ?
- Rol : (gogoretaka). Hori lehen zian, lehen. Orai emakok eskuan liburu bat eta berehala ikasten dik dena gogoz. Hor zabilak orai harro harroa, denetan sudurra sartua, denetaz kondu galdegiten.
- Jul : Hori baino lanjerosago da ba neska hura. Zuk kartan izkiriatsen duzunaren arabera, Uniberditadean ibilia... Margarita Lujan...(gogoretaka). Izen hori ez dut arretza.
- Rol : Ezaguna ahal duk ?
- Jul : Bai, adixkide onak izanak gaituku.
- Rol : Ez zakala uste izan diruz erosiko dukala. Harroegi duk hortako.
- Jul : Ez du nere aintzinean harrokeria handirik erabiliko... Utzi, utzi gostuan ene gomendio. (kanpotik zakur ihausiak entzuten dira).
- Rol : Ixo ! Hor diuk ~~Paulo~~ Paulo. Goazen nere bulegorat.
- Jul : (aitari jarraikiz). Margarita Lujan beraz... Untsa orroit naiz... Begi ederrak ahal ditu ba... Margarita... Margarrita... (zakur ihausiak gero ta hurbilago ... xistuluze bat eta ~~margaren~~ margaren botsa sakurrak ixil-arazi nahis...)
- Margaren botza, Te ici labri ...couche...hola...hola... (Marga sartzen da ihiziko tresnekin...kertuxak gerrian, harma biskarrean . Harma kenduz bizkarretik, botatze du fotil baten gainerat ...kartuxak eta zakua bardin, Paulok egin zuen bezala. Mahain ondorat hurbildurik,,so egiten ditu Pauloren kaierreri. Loriatua dago...Txistuz ari da...Halakoik batean, so egin eta nehor ez dela, sartzen ditu erhiaka ahoan, txistu egin nahiz eta nehor ez dela, sartzen ditu erhiak ahoan, txistu egin nahiz bainan ezin egin...Berriz ere entseat ~~zen da ...)~~
- Marga bakarrik . Berehala anjeli;
- Marg : ez dut sekulan ikasiko. (Paltoko sakelatik sagar bat hartu eta kosk egiten dio. Bortan izeba Angeli agertzen da)
- Anj : Bakarrik ?
- Marg : Agur Anje li .
- Anj : Agur Paulo uste nuen zuekin zela, zakurrak aditzean, etzaituzte izitzen orai ?
- Marg : Adixkide handiak gaituzu orai. Ihizin ibili gira.
- Anj : Eta Paulo ?
- Marg : Liburutegian ari da geldi geldia ikasten. Eta... Izeba Matildarekin elhe egin duzu ?
- Anj : Entseatu naiz bainan ez du nehor bere ideietarik aterako. Mutikoari sekulan amarik ez aipatzea omen da hoberena.
- Marg : Lehen ez dut erraiten, bainan orai ohartu da ama hitz bat baino gehiago dela. Paulok berea, bere ama nor zen jakin nahi du eta guk ez dugu dretxerik ez erakusteko.
- Anj : Bainan etzaizu gogoratu egia erraiten ahal giniokela ?
- Marg : Zerbaiten arrangura badu gogoan. Zertako erran digu ba etxe osoan ez dela amaren croitzapeh bat ere ?
- Anj : Berriz ere galdegin dautzu ?
- Marg : Hortan ari da alderat zoko miatzen, eskuetan erabili nahiz hak bereetan erabili zerbait. Ttipia izanik ere ibual du... Behar nuzu lagundu.
- Anj : Kutxa eta harmairu guziak miatu diut.
- Marg : Ta zer atxeman duzu ?
- Anj : Denak hutsak...Doi doia medela ttipi bat eta fotografia bat.
- Marg : Fotoa, amarena ?
- Anj : Bai bere lau urteko semea besoan.
- Marg : Zer xantza ! Erraiten ahal dut Pauloni ?
- Anj : Izeba Matildaren permissionerik gabe ?
- Marg : Zer balio du ? Ez zaitela haren beldur izan !

Anj : Ez da ez bekdurkeria, lazakeria da... Ni besten menean \bar{x} ibiltzeko sortua naiz.(trixteki) Nere ahizpa aldiz bertzeen manatzeko... (kanpotik, Pauloren oihia). Mar-gaaaa !

Marg : (berdin oihu eginez). Pa...u....looo...(presaka Anjeli lagunduz). Ekarrazu eni haren...

Anj : Eta Matildak jakiten baú ?

Marg : Zoazi gostian. Denak ene gain hartzen ditut... (Paulo sartzen da, liburu handi andana bat beso azpian, beti bezala gazte ta alegera).

Marga ta Paulo.

Paul : Nun ibilia zauku gure kapitaina ? Iduritzen zaut berogoi urte hoitan falta zinela.

Marg : Mendiz mendi ibilia nauk Labri ta Xurirekin.

Paul : Zerbait hatxeman duzue ?

Marg : Bai zakur ttipiak erbia arrapatu.

Paul : Biba zuek ! Kontent zira ?

Marg : Loriatua... Gain heietako haize garbia odolerano sartua zait... Zer gosea ! Eta hik ?

Paul : Ni bost orenetan hasi naun ikasten... burua hantua dinat... ez dinat gosearen herrestorik ere.

Marg : Untsa duk, bakotxa bere lekuan. Eta zer da berri ?

Paul : (Liburuak mahai gainean pausatuz). Bi liburu berri ditinat leitu eta hau, Roldanen bulegoan hatxemana.(Liburu handia ta erakutsiz).So egizan, dena xifre ta zirimarra ditun. Azeri zahar horrek ez dakik bertzerik egiten...(liburua botatzen du mahai gainerat).

Marg : Eta bertzerik zer leitu duk ?

Paul : Antzerki bat biziki ederra "Justuak" Kamus jaunak egima... Kamus... hura hura gizona... aitzak usi aipatzen zian... Eta kik ikusi dun behin ere antzerki hori ?

Marg : Bai, ikasle nintzalarik...

Paul : Eni ~~xxx~~ ere eder litakek hirekin teatroetan erabiltzea (ametslari). Gero elgarri besoa eman ta karrikaz karrika ibiltzea, argiak eta gora ura botatzen duten iturriak ikusiz. Zoragarri....

Marg : Oraino goixko duk hortako... Behar bada geroxago...

Paul : (Bet betan xutituz). Eta zendako ez orai berean ?

Marg : Hango usaiak hemengoetaz pestalde dituk. Han batuk jende ergelak...bertzeekin irri agin nahi dutenak...jelosia...

Paul : Nerekin ez litakek haratik ez hunaratik...Ikusten dun ukamil hau ? Lehen ausartatzen zaukanari...

Marg : Hortako gaituk bai ezin joan oraino...

Paul : Asea nun ni, beti gero ! Ez badun jingo, joanen nun bakarrik.

Marg : Ez duk nitan konfientziarik ?

Paul : Oso-osoa.

Marg : (Anjeli heldu dela ikusiz).Gaur karrika argitsuaketa iturriak baino gauza handiago zerbait...

Paul : (Gogoetan). Zer ?

Marg : Horra izeba Anjeli.

Paulo, Marga ta Anjeli.

Anj : Hire ama zenaren oroitzapenak... Ez diat bertzerik hatxeman ahal izan.(Paulo trublaturia, ez da menturatzen hunkizera)

Paul : Hau gure ama zenarena zen ? Bere eskuetan erabili ditu ?

Anj : Bai, arras maite zitian.

Paul : Zer da hori ?

Anj : Hori hire jostatzeko erosia zuen jostagailu bat...Hemengo untzi huntarik ateratzen duk ttipiagoa, eta gero bestea eta bestea.(Paulohasten josteta untzi horiekin...eta gero utzi eta...).

Paul : (fotoa behatuz).Eta hau ? Nor da emazte hau ?

- Anj : Hori, hura... Eta hi besoetan...
- Paul : Enekin ? Beha zakon Marga... (garrasia bat egiten du kontentarekin). Elgarrekin... Elgarrekin... (fotoa bere bihotzaren gainean ezartzen du).
- Anj : Orai bakarrik utziko haitugu. Ez dea hala ?
- Paul : Ez, ez, hi geldi hadi hemen... Barkatu izeba Anjeli bainan Margarekin nizalarik hobekiago senditzen dut nere burua.
- Anj : Bai seme, bai. (eta jalgitzen ~~ada~~ doa).
- Paul : (besotik hartzen du eta besarkatzen). Milesker izeba Anjeli, Anjelitxi, Anjelitxo... Aingeru...
- Anj : (berotua). Mutikoa; itoko nauk... basa... basurdia !!!

Marga ta Paulo

- Paul : (Paulok ttantta laxatu eta...) Zer inoxenta naizena... Ez dakinat jehdekilakoaren egiten.
- Marg : (ondoan jartzen zaio). Geroxago hobeki ikasiko duk...
- Paul : Etzakinat nola erran, bainan hi nere ondoan haizekarik, iduritzen zaitak nere amarekin naizela... Nolako begiak ote zituen ?
- Marg : Urdinak.
- Paul : Urdinak ? (Margaren begieri so egitez). Harritzeko duk, nik uste begi ederrak beti berdeak zirela... hireak bezala...
- Marg : Milesker.
- Paul : Urdinak... Ez dinat behin ere begi urdinik ikusi. Eta ileak ?
- Marg : Gaztena kolore.
- Paul : Hireak bezala.
- Marg : Bai bainan luseago.
- Paul : (Margaren ileak usainduz). Hire ileak mendiko airean usaina din...
- Marg : Goiz guzia iratze pean ibilia* nauk.
- Paul : Eskuak ikusi dazkok ?
- Marg : Ttikiak eta pollitak.
- Paul : Hireak ere bai... Bainan Erraiten ba d~~at~~ ez haiz gaitzitu ?
- Marg : (irriz). Ez duk erraite beharrik... ni baino... pollitago dela...
- Paul : Eta nitaz zer dion ?
- Marg : Xarmegarria haiz...
- Paul : Orduan zertako ez haiz heldu enekin errekarat ? Hemen ere (fotoa erakutsiz) larru hutsik nun ...
- Marg : Ez duk berdin... Her lau urte dituk bakarrik...
- Paul : Bainan ez dun hori gauza inportanta...
- Marg : Eta hik zeri erraiten diok gauza handia ?
- Paul : Badituk gauza ttipiak : esku hau, udan beroa, ta neguan hotza, gau ilargi edo iluna... Bainan badituk bi gauza ~~xi~~ biziki handiak.... Heriotzea... ta... Jainkoa.
- Marg : (harritua so). Errango datak zer den heriotzea ?
- Paul : Nik ainitz aldiz ikusi dinat nere inguruan heriotzea... Lehen aldian, zortzi urte nintian. Orroitzen haiz "Begi Ederrez" ?
- Marg : Udaberrian partitu zen basa ahuntz hartaz ?
- Paul : Egun ba tez, iluntxeari buruz bakarrik nintzalarik, ikusi nian heldu herrestaka... Lepoan saki batekin... Hasi nintzalarik odolaren kentzen, so egiten zautaan, erranez bezala : "Ez haizela skit, mutikoa... ez dik balio... Nereak egin dik..." Su ondoan etzan nian eta hantxet egin zian geldi geldia... hotz hotza... begiak zabal zabala idekirik... Bainan Bixtarik ez... Etixerata aitzak hitz bat bakarrik erran zian : "heriotzea" Eta orduan ikasi nian zer zen heriotzea.
- Marg : Heriotzea, ageri den geldi geldia eta hunkitzen den hotz hotza duk... Bainan Jainkoa???

-16-

Paul : Jainkoa...Aldi batez ihizin erabili eta etxerakoan ilunak harrapatu nintian, eta basa bortuan galdu nian nere burua... Sekulan gertatu haiz gain heietan, lanoak erortzean ?

Marg : Behin ere...

Paul : Ilunbe osoa, eta ixiltasun osoa...hotzikarrak arrapatua zaldiaren hanketaraino. Memento hartan ohartzen haiz hire ez deusaz eta bakartasunaz...Eta bakartasun hartarik ihes egin nahi...Zaldia akulatu, bainan alferretan... daldaraka ari gelditu gabe...Eta orduan hartu naun ez naintzela bakarrik, Ilunbetan norbait hurbildu...Nehor baino handiagoa...Nik ene beldurra ezin jasan, eta "Aita" oihu egin nian. Ordu berean, hori erran orduko, ortzia lehertu zian eta ximixtak mendia argitu...Orduan konprenitu nian Jaun Goikoa zelarekin han zagona.(Paulo ixiltzen da).(Marga hari so). Gogoetan ari Marga ?Ez dun konprenitzen ?

Marg : Bai Paulo bai, sekulan bezain untsa konprenitzen.

Paul : Bon , utzi elhea, ta goazen lanerat.

Marg : Bainan gaur berriz lanerat ?

Paul : Ez ez, hi hail lanerat. Nik bakantza zombait hartuko ditinat..

Marg : Zer egin behar duk ?

Paul : Orain arte egin ahal ez dutan zerbait. Gure amarekin

Marg : ^{joستا}so egiten ahal diat ?

Paul : Zertako ? Hik so egizkik nere lanak eta utz nihaur. Aditu ?

Marg : Hitz-emaiten diat.

(Marga bizkarrez mahainean jartzen da...Paulo aldiz lurrean. Eskuan fotoa hartuz, hari so egiten dio, xixtu eginez goxoki. Gero boitak hartzen ditu eta aldi bat kentzen, handi bat gero ttipiago, gero ttipiago, gero beste bat, beste bat... Paulo gero ta loriatuago mixtuz ari gero ta finkiago. Eta azken untsiaren barnean hatxemaiten du letra paketa bat estekatuak...)

Marg : Gauza bat galdegingo deat.

Paul : Bainan so egin gabe. Zer da ?

Marg : Oixtiko basahuntzaren ta mendiko ixoria...irakurtzen ahal ditiat ?

Paul : Zertako ? Ez dezteat jadanik kondatuak ?

Marg : Kontent nitakek berriz leitzea.

Paul : Bon... Eta bestalde ?

Marg : Bai...Europa ta Ameriketa hitz ttipiz izkiriatzeta...

Bainan Heriotze ta Jainkoa...beti handitan...

(Paulok ez dio arrapostua egiten. Harritua da letra heieri so).Entzun duk ? (Paulok korda hautsiz). Entzun duk bai ala ez ?(Paulo harritua so dago eskuan dituen letreri).

Paul : Adelaida maitea... Adelaida ?(Ixilik irakurtzen du... bat betan letra itzuli ta sinaturari behatzen dio...Zuritzen da...Kexu): Ez ! (beste letra baten hasten da sinadura so egiten ditu) Ez ! Ezin diteke...(oihuka).Ezin diteke !!! (jauzi batez xutitu ta kartak ahurrean xehatzen ditu).

Marg : (goxoki ta itzuli gabe).Zerbait baduk ?(itzuli ta, so egiten du Paulok xehatzen dituen letreri...).

Paul : Ez ... Ez ... Ez ...

Marg : (irakurtuz, goxoki). Paulo !!!

Paul : Ez, ez ditake egia.

Marg : Paulo maitea !(hurbiltzen zaie).

Paul : (urruntzen du). Ez, urrun hadi...ez nihor hurbildu... ez hi ere...

Marg : Bainan nik zer egin deat ?

Paul : Ez nakala hunki !

Marg : Ezin ditekek...Paulo...ez zakala hola so ! Ez nauk Jainkoa... Marga nauk... Ez nauk ikusten ? Bainan zer egin deat nik hi hola jartzeko ? Hire gatik bere bizia emango kukeen hunek zer egin dik ? Mintza hadi, maitea, mintza hadi ! Bainan zer gertatu da hemen bet betan ?

- Paul : Utz nezan. Sekulan izaitzekotan orai bakarrik egon behar dinat.(kanporat abiaratzen da)
- Marg : Ez, ez hola. Lehenik erraiz zer gertatu den ?
- Paul : (letrak begiz hotz hotza erakutsiz). Hori jakin nahi baduk horra hortxet arrapostua.(kanporat abiaratzen da. Marga belauniko hasten da letren biltzen. Paulo itzultzen da, ta saminki) A, ta ~~xxxxxx~~ ahantzi ga be, milesker leitzen erakutsirik !!! (Marga belauniko, orai ohartzen da zer den. Eta Paulori galdeka ari zaio):
- Marg : Paulo !!! Paulo !!!(Paulok so egin gabe ere aintzina joan da, Marga kunkurtirik nigarrez hasten da... Erdiko bortan Julio agertzen da ta Margari beha gelditzen).

~~xxxxx xxxxxxx~~

Marga ta Julio

- Jul : Lujan anderenoa. (Margak ez du entzuten)...Lujan anderenoa...
- Marg : (burua altxatuz). Nor da ?
- Jul : Zure adixkide ona.
- Marg : (Bet betan buria altxatuz). Botz hori...Nor zaitut...(itzuli eta). Julio !
- Jul : Erteko maneran...ene ageraldiak ez dautzu onik egin...
- Marg : Zeren berka heldu zira hunarat ?
- Jul : Aspaldian ezagutzen dugu elgar orai "zu" ka artzeko...
- Marg : Nere bizi guzian nere ondotik erabili behar duzu ?
- Jul : Ez nabil ni nehorren ondotik... Nere etxean nago.
- Marg : Zure etxea hau ?
- Jul : Bai nere etxea Pauloren amaren aldetik. Bere izena ahatzia duzu ba ?
- Marg : Julio Roldan...Julio Roldan...(gibeleratuz). Orduan egia da ?
- Jul : Ez izi. Ez naiz hunarat heldu etsai bat bezala. Hain xuxen nere adixkidantzaren eskaintzerat heldu mintzan.?.Joanak joan, gure artean pasatuak ez ditu nehork jakinen.
- Marg : Eta nik errefusatzén badut ?
- Jul : Orduan segur dolgtuko zaitzu.
- Marg : Berdin huntanta geroz berdin zaio. Zernahi gisaz goiz edo berant jakinen du ?
- Jul : Bainan aldi huntan jina naiz ene bihotz onak pusaturik... Zerbaiten galde egiterat jina naiz. Entzun nahi duzu ?
- Marg : Mintza zaite...
- Jul : Zonbait aldiz ixiltasunak dirua balio du. Ni aberatsa bainiz gogotik eskain nezake...
- Marg : Eta zer da prezioa ?
- Jul : Ezin merkeagoa. Zuk errana, Paulok begiak hetsirik egiten du. Hortako zer nahi sineraziko dakozu.
- Marg : Hori da...Zuk izkiriaturko dituzun paperak sina ditzaka...
- Jul : Zu orai ere lehen bezain burutsua !
- Marg : Hitz erdi batez, legezko ohointza. Ez da hala ?
- Jul : Legezkoa izatez geroz, izenak ibual du.
- Marg : (xutituz). Etzitzaitzun buruan pasatuko ni beldurtu eta hortarat eroriko nintzela...Zure bizia neskato airosekin iragan ondian, hori da heiekin ikasi duzun guzia ?
- Jul : (xutituz,eta hotz-hotza). Ixiltxago...
- Marg : Zeaz berehala etxe huntarik...
- Jul : A, hori ez !bihar arte hor naiz, eta zuk ez banuzu entzun nahi, beste batek entzunbeharko du ba zure ordez !
- Marg : (izitua) ez ahal duzu holakorik erranen Paulori.
- Jul : Ez da atsegingarri, bainan obliarazten banuzu...
- Marg : ez gaur, otoi ! bihotz beltzegia litake !(bortari so eginez) luzapen bat galdatu nahi dautzut... Hitz emaduzu gaur ez duzula ikusiko...
- Jul : Eta gero ?

Marg : Gero zuk nahi bezala izanen da. Bainan gaur otoi ez !
 Jul : Ez uste izan ni hura bezala enganatuko nuzula !
 Marg : Ikusi nuzu sekulan gezurra erraiten beldurrez ?
 Jul : Orai arte ez !
 Marg : Orduan zoaz gostuan. Berriz jinen zirelarik hemen hatzemanen nuzu, prest arrapostuaren emaitako.
 Jul : Untsa da, bainan orroit gauza guziek badutela finitze bat. (atetik) ikus arte beraz, Lujan anderenoa. (burua makurtzen du ta ateratzen da. Margak presaka lurrean diren gauzak biltzen ditu... Paulo sartzen da?... eta so egiten Margari).

Marga ta Paulo.

Paul : zer tako dituzu hoiek.
 Marg : gordetzerat nindoan.
 Paul : ez akit. Ximinean ederkiz eginen dine su.
 Marg : hire ama ez duk ezagutu eta ezagutu gabe ez duk hastiatzeko dretxorik.
 Paul : nahikos... Hogoi urte bizi izan naun hura gabe, eta aintzina ere segituko. (jartzen da fotilean, burua eskuen artean gogoetan) (Marga hurbiltzen zaio)
 Marg : hobe duk oherat joaitea. Akitua haiz.
 Paul : indar ahulezia baino okerragoa zaukanat. Ez dinat konprenitzen
 Marg : ~~Hobekoa duk xoxokoa izateko~~ Hea, bien artean.
 Paul : ~~xxxx~~ Hasi hartan, denak erretxak zaitaan, bainan gero ohartu nuk ez nuela konprenitzen ez eta konprenituko.
 Marg : Zer duk ba, buruan hartzen ez dukana ?
 Paul : Orai berean, ganbaran nintzelarik, amari gogoetaka arizan nahi eta hareh begi urdinen orde hire begi perdeak nintuan gogoan. bere ileak iduri nahi, eta hire ile usaina bakarrik artzen. Zendako?? Zendako ote ?
 Marg : Ez hadila eni sobera esteka... Oroitu egun batez elgar utzi beharko dugula.
 Paul : Hori lehen ere erran datak, bainan ez zaitan buruan sartzen.
 Marg : Emekiemeki hori ezarri behar duk gogoan. Oroitu berdin gaur azken gaua dugula elgarrekilako...
 Paul : Ez gaurkoa eta ez nehoizkoa. Hemen hiz eta ez haut partitzerat utziko.
 Marg : Hori ezin egin ordea... Edozoin goizetan jaikitzean mendi batetik besterat oihuka hasiko haiz "Margaana" ta Margarik ez duk izanen.
 Paul : Zer ari haiz ? Azken agurra ahal duk ?
 Marg : Ez, egun hori heltzen denerako usatu behar duk. Ezahal haiz ni gabe orai arte uros izan ?
 Paul : Bai, hi arribatu aintzin, mundua gauza ederrez betea zian. Bainan orai inguratzen eta alegeratzen nuen~~za~~ bakarra dun: Margaa;;...Marga...
 Marg : Hitz eder horiek entzutean, nere bizi osoa horientzat eman nezakek gogotik... Bainan ez ditakek... Ez hadila gehiago lotu neska bakarrari. Ez hihtake berriz gogotik joan mendirat ?
 Paul : Orai, berantegi?... Han nabiltzanian, ba ahal dakin noiz galtzen nuen loa ? Gose nintzalarik, edo zauritua, edo izitua. Orai aldiz, hi haitut nere zauri bakarra ta nere gosea ta nere beldurra.
 Marg : Izitzen haut ?
 Paul : Gaur ba, ez ba haiz bestek bezalakoa... Ez zaun iduritzen haizeak ere usain on bat dariola ?
 Marg : Larrakena duk... Lurraren usaina.
 Paul : Ez dun hori. Lur usaina eta hire larru usaina hemen ditun. Iduritzen zaitan aspalditik ere gaur zerbait barnaxago baden. Basaahuntza ta ximixtaren artean bezala hemen barne huntan sartu denez mixterio zerbait... (gogoetan) Ez dun zerbait senditzen ?

- Marg : (nahasia). Bai ni ere nihoiz senditu ez dutan gauza batek ingurypatzen nik .
- Paul : Bazitakek sareen artean erori ta hantxe galduko naizeka, ta halere erori nahi. Gaurko gaua ez dun bertzeek bezalakoa Lehenago ni nundukan azkarrena, eta orai hi indartsuena. Zertako ?
- Marg : Libra zak hire burua nigandik Paulo, orai duk mementoa.
- Paul : Ez .. Ez dionat... ahal banu ere, ez nezakek egin. Hik denak baitazkik, erran zak: zer da gogoan ariman eta odol zainetan erabilki den asmu berri hori ?
- Marg : Etzakiat... Nik senditzen dutana duk hik ere segur ere...
- Paul : Ahotik jalgi aitzin hitzek berek daldara bat egiten dire barnean ?
- Marg : Bai ta ere...
- Paul : Orduan, bi gauza handi, Jainkoa eta heriotzearen gainerat hitzak dardarikarazten dituen hirugarren gauza bat ere baduk hemen...
- Marg : Bai, Paulo... Hirugarren ~~hitz~~ gauza bat... Jainkoa hirekin dukala uste ta memento berean, heriotz hatsa hurbil...
- Paul : Erran eni hirugarren hitz hori ... Hire ahotik entzun nahi dinat...
- Marg : Etziok beharrik maite... Hirugarren hitz hori hoin handia bada, hobe dik ixilik erraitea... Hola... (Eta hurbildurik, beharrikat erraiten dio... eta gero biak musuka ari direlarik) :

O I H A L A

Hirugarren egintza.

Keku bera, ilabete zombaiten burua. Gaua da. Kandelak piztuak, Mahaia ezarria, kuberta euerrekin. Etxeko norbaiten pesta naski... Bi ahizpak berdin beztu, usai bano apinduago. Ximinea piztua ta Oihala aluxatzean, Euxebio loretegitik heldu da, beso azpian du damasana eta ximinei ondoan ~~xx~~ ezartzen du. Matilda sartzen da, apaindua eta elheketari delarik, harat hunarat erabilki da, gauzak aranjatuz.

Matilda ta Euxebio.

- Mat : Baduguia edari finik sariko ?
Eux : Beti bezala, filetarentzat Burdeos zuria ta errakiarentzat Bordeleko gorria... usai bezala.(paketa bat emanaz).
Bujiak bixkotcharentzat,
Mat : Nun dira gure bazkaltiarak ?
Eux : Roldan jaunarekin, etxe itzulia
Mat : Aspaldian ?
Eux : Ilargi betean daude. Bainen ixtantean, ene zango hunek diona, neman izanen ditugu aterbean. Uhar bat heldu da.
Mat : Zer duzu zuk, zango hortan barometra ?
Eux : Beldur niz ez ditugun errumatismak. Aitak utzi dautan ontasun bakarra bera.
Mat : (bujiak kondatuz). Hogoi ta lau; hogoi ta bost, hogoi ta sei. Ogoitasei...Urtea jadanik betea, nork erran...Iduri du azo jautsia dela menditik gure otso umea...Bainen orai haatik...koztumarekin eta denekin...Iduri du bere bizi guzian erabilia duela... Ikusi duzu ?
Eux : Bai, ederki da. Ea duzu orain zerbait eskas ?
Mat : Ez, untsa...Orai afaltiarak ditugu eskas...
Eux : Har azu pazientzia...Ez dira... Ez dira biziki interesantak, bainen horiek izanki ahaide bakarrak !
Mat : Urruneko ahaideak, zorionez, bainen horiek ere Roldan'tar horietarik. Adar ustel hori beti gure etxen sartu nahia ! (mahi ttipi gainean so eginez). Horiekzer dira ? Nork edan ditu bi aperetifa horiek ?
Eux : Nagusi gazteak naski.
Mat : Paulok ? Ez du sekulan edaten. Bainen berak edan ditu ?
Eux : Ez, Juliorekin. Oixtian biak hemen erabilki ziren elgarrekin, arras alegera.
Mat : Paulo ez da usatua eta kalte eginen zaio...
Eux : Zaude gostian etxekanderea. Burua untsa du bere lepoaren gainean.
Mat : Ez haiz fida. Kusia berriz eterriz geroz usu elgarrekin dira. Maltzurra da gero hori, ta zerbaiten xerka dabila.
Eux : Gazteen konduak !(Izaba Anjeli beste plato batekin sartzen da). Pada oraino zerbait egiteko ?
Mat : Ez, milesker, zoaz Euxebio...
(bi ahizpak gelditzen dira lanean ari aferatuak).

Matilda eta Anjeli.

- Mat : Bere lehen urte mugaren ospatzea, gure gazte denborako egun heietaz orhoitzen haiz ? Bota sua opilari Anjeli.
Anj : Bai, Matilda, labean sartu dinat.
Mat : Bainen ez dun artekarik utzi.
Anj : Ez, ez dinat utzi...
Mat : Bainen erreko dun bixkotxa !
Anj : Bai erreko dun...

Mat : Bainan zer dun Anjeli

Anj : Bai Matilda bet betan...

Mat : (harriturik begira). Anjeli ! (Anjelik harrizkoa iduri, begiratzen ez jakin nun. Matildak inharrosten da). Erna hadi ! Zer gertatzen zaun bada gaur ?

Anj : Utz nezan.

Mat : Ez buruz buru begira ta erradatak zer dukan. Zer gertatzen da gaur hemen ?

Anj : Uzteko erran dinat. (burua eskuen artean hartu eta nigarrez hasten da... Matildak goxoki hartu eta...).

Mat : Nik uste baino handiago zerbait !

Anj : Ez nian nehoi erran go, bainan ezin ixildu gehiago... Marga joanen dela gaur etxe huntarik ?

Matx : Marga joan dela ? Eta zergatik ?

Anj : Nik dakita ? Sartun nun haren garbaran, ustez eta nehor ez zen eta han atxeman dinat, nigarretan, balisak eginak zituela.

Mat : Zer erran daun ?

Anj : Deusik ez, Matilda... Pauloren onetan johan zela eta nehoi ez erraiteko hura urrundu arte. Zerbait egin behar diun Matilda, ez diuk hola partitzerat uzten ahal !

Mat : (deliberatua). Untsa dun; Orai pentsu dinat zer pasatzen den. Beti akitua eta zuri... Begitartetik besterik ez din ageri...

Anj : Zerbait gaitz arrapatu ote din ?

Mat : Aspaldi huntan Marga ez dun lehengoa. Oroit hiz, aldi bat atsaldekoaren egiten ari ginelarik, flakatu baitzen eta mahain gainerat erori...

Anj : Bai orroit nun.

Mat : Behin baino gekiagotan ukan ditin truble ta nahaste batzu... Bai ta ainitzetan ikusi dinat negarrez ixilik... Neskatzka bat hola ikustean kasu, gaitz orde, bertze zerbait baduen...

Anj : (konturatuta) Ea ?

Mat : Bai Anjeli bai... Eta nolaz ez gira gauza horri orai arte ohartu ?

Anj : Orai oroitzen nun bai, Roldan'ek holako zerbait aipatu zuela lehen egunean berean...

Mat : Horrek nik ba erroarazten... Beti bezala Roldan horiek bazterren nahasle... (urrun ageri dira, Julio ta Paulo kantuz orroaz heldu).

Anj : Hemen ditun orai, Zer egin ?

Mat : Gaurko hau pasa dezagun egin ahala untsa. Marga-ri Erran ez dela hemendik joanen nik erran arte, ta jakin dadila gurekin afaltzerat edozoin gisaz. (Anjeli abiatzen da). Kentzak opila labetik...

(biak ateratzen dira. Erdiko bortatik sartzen dira Paulo ta Julio lepotik lotuak; Paulo alegeratua. Julio aldiz; edaten usatua bere aire maltzurrarekin...)

Paulo ta Marga

Paul : (alegeraki). Handia haiz Julio. Bainan nola bizi izan nauk gaur arte, adixkidea zer den jakin gabe... Ekarrak eskua adixkide... (elgar besarkatzen dute).

Jul : Paulo, banakian munduko adixkiderik hoberenak izanen ginela...

Paul : Emazteak dituk berexi nahi gaituztenak... emazteak. Horiek ez dakie ~~egix~~ nigar egiten baizik. Hori zaiotek eder. Gizonek aldiz ez die negar egiten bainan edaten... Emaztea abere negartea duk, gizona aldiz adimen handiko aberea. Beste besarkada bat ?

Jul : Besteak beste, kupa bat xanpaina ?

Paul : Bai, ori ori ! (buxuna kentzen dio mahai gainean den botoilari. Xanpana ixuriz basoetarat) holaxet. Hagun handi batekin... gure osagarriari... ba ahal duk munduan adixkide on bat baino gauza ederragorik ?

Jul : Bi adixkide...

Paul : Bien osagarriari bada...

Jul : Hire onerako... (biek edaten dute. Paulok basoa klik huts eta, fotilean erortzen da...).

Paul : Ah... xanpainaren indarra. Egun osoa zaldiz ibilia banitz bezala, belaunak kalak egiten die... (Bet betan xutituz iduri eta zerbait gogorat jin zaiola). Hori duk ba... Xanpana ta zaldia biak berdinak dituk... Biek haguna muturrean eta zainetan... Horra zaldia botoilan sartua...

Jul : Ederki errana ! Handia haiz ki... ez duk hi bezalakorik...

Paul : Horixe, beste baso bat anai ?

Jul : Bizi osorako... (Paulo berriz fotilean erortzen da).

Orai entzun nahi duk ixtant bat nik errana ?

Paul : Zer duk lan zerbait neri egin arazteko orai ?

Jul : Ez, lana nik eginen diat, hik aski dut sinatzea (paper luze bat erakutsiz) hementxe.

Paul : Bainan orai berean ? Ez duk aise. Lehenik leitu behar nitek !

Jul : Zer erran nahi duk ? Errefusatzen dukala ?

Paul : Ez ez, bainan irakasle xoxo horrek ez datak erakutsi eskuinarekin izkiriartzen baizik. Eta untsalaz paper handi horiek ezkeraz sinatu behar...

Jul : Ezkerarekin ? Nork erran dik astokeria hori ?

Paul : Ene aitak. Ihizin zelarik kartuxa batekin eskuina kolpatu zian eta ez zian gehiago ezkerarekin baizik sinatzen... (xutituz) hemen gertatzen dena, hi oraino gaztetxo haizela enekin tratuan artzeko ta ez haizeka ohartzen... Beste baso bat ?

Jul : (Koleran, zuritua). Ez... (paperra gordetzen du).

Paul : Hara bestia berriz... Elurra bezain zuri hago! Beltza hadi gero... Hi usatia haiz edaten ta ni ez... Ta hiri kalte egin... (inarrosten).

Matilde, Paulo ta Julio.

Mat : (ausarta sartuz) Erna hadi Paulo, ongi etorriaren egiteko afaltiarriari. Hail bisaia horren freskatzerat eta orraztatzerat

Paul : Baniazu, ez kexa... Milla esker Julio... Alafe ez diat nere bizi guzian holako memento gaxorik pasatu (bortatik ateratzean) eta ez ahantz... Holak paper batzu ezkerarekin sinatzen direla... Ezkerarekin.

Matilde, Julio ta afaltiarrak

Mat : Ez zira ahalge, usatia ez den mutikoa hori hola mozkor-arazteko ?

Jul : Ez zaitela inketa ! Paulok burua zuk eta ni baino erneago du ?

Mat : Eta zer nahi zuen ? Roldan darrek ez dute sekulan bakerik... beti maltzurkeria...

Jul : Ez zaitela kexa anderea. Zer erran lezakete gure afaltiarrak ? (Orduan sartzen dira afaltiarrak Roldan jaunarekin); (Perez Roldan jauna medikua. Antropologia irakaske eskola handi batetan. Bere emaztea, apaindua, Lola, edo Lulu nahiago du entzun. Harro harroa dabila bere senar jakintsunarekin.

A Alaba, Fifi, pollita, ta denbora berean pixka bat xoxoa)

- Lulu : Matilde maitea... Etxalde inguruan erabiliak gira... Zerleku ederrak ... Zer kanp~~ak~~ !
- Mat : Milesker !
- Rol : Hau ez da deusik. Ikusi behar zinueke gure mendiko etxea bere artaldearekin.
- Fifi : Amets zoragarria !
- Irakasl : Eta mutikoa nun da ?
- Mat : Ixtantean hemen izanen da. Joan naiz beztitzerat. Barkatu...
- Lulu : Zoaz, zoaz.
- Mat : Julieren konpainian uzten zaituztet. Ni baino trebeago da aperetifa hoietan ere. Berehala heldu naiz (ateratzen da)
- Jul : Martini, Porto ?
- Lulu : Ez duzu bertzerik ?
- Jul : A bai, ~~xxxx~~ blanc d'Anjou.
- Lulu : Ed~~o~~soin, ibual du. Merci beaucoup (Julio~~k~~ ad~~e~~tarat emaiten du).
- Jul : Eta zuk Fifi ?
- Fifi : Nik Martini ~~xxx~~ xorta bat, zitrain xerra batekin... (mahai gainean) sandwich bat hartzen du).
- Jul : Eta zuk mediku jauna ?
- Irakas : Zer nahi ... Ni basa mutike heri ezagutu nahia naiz.
- Jul : Berantetsia duzu ? (basoa eskainiz).
- Irakas : Bai, ta nola ! liburu baten izkiri~~atzen~~ ari naiz : "Egungo~~x~~ abereak eta lehenagoko gizonak". Egun ikusiko dutan etsenplu horrek l~~o~~riatuko zuen Emerson de Rousseau izkribatzaile handia ere...
- Rol : Ez zazula sobera ametsik~~egin~~ . Ora~~n~~ duela arte bat es d~~u~~ dut erraiten, bainanorai arras kanbiatua da...
- FIFI : Nik ere ikusi nahi bainan izitzen nau. Lehen aldian emeztea ikusi zuenean; oikuka ta jauzika hasi om~~e~~n zen; eta ausikika
- Lulu : Horren ~~susikie~~ ausikia hartzenahal huke ... Paulo~~k~~ ~~ats~~ abe rats puxanta dul. Eta bertalde hire aita~~k~~ ziona lehen ausikia dun gaixto ena... Eta gero musua.
- Rol : Lehendik kanbiatu da. Bainen gibelago naski idu riz segurik.
- Fifi : Dena den, odolean deramakiguna ez dugu ahanzteh... Segur naiz... gauaz garrasiaka igaiteh dela arbola gainerat.
- Irakas : Erki alabatxo... Hola egiten zuten lehen gizonak.
- Lulu : Ez nezazula izi... Zer duzu ikusiko bada ? Zimino bat kostuma eder batez jauntzia ?
- Irakas : Hori baino ederrago. Grotetan bizi diren heietarik bat. Aitak etzian elheketa ikasi behar. Ordian ordian ederki...
- Jul : Horiek guziak alderat utzirik, Paulo~~k~~ odolean duena guretzat gauza biziki inportanta da, ondore handikoa ditek~~e~~?
- Lulu : Zer onderio ?
- Jul : Guretzat haberena... (hitzak ixilduz). Ahantzi ahal duzue haren aita hogoi bat urtez ez zela lege bidez bizi izan? ... eta azkenik zozoturik hil zela ?
- Fifi : (Izitu~~a~~). Ez, ez dadila ni ganat hurbil... aditu...é ? Hurbiltzen bazait lasterka eskapatuko naiz gero ?
- Lulu : Hik, nik erranak eginen dituk...Eta loretegirat joaiteko erraiten badauk, joanen haiz...
- Fifi : Ilunbean basa horrekin ?
- Lulu : Ilunbean denak berdinak ditun...neska...Har zan goxogoxoa hire burua eskaini behar badion ere...ai...barkatu... Ez dakit zer dietan ere...
- Rol : (norbait heldu dela ~~xxxx~~ adituz). Ixilik...(izeba Anjeli sartzen da).

Lehengorak eta Anjeli. Gero Paulo ta Matilda.

- Lulu : Anjeli maitea Orai mintzo ginen zure ilobaz... Fifi daukan zoramena ezagutzeko... Oraiko gazteria hau...
- Anj : Berehalaxe ezagutuko du ba... Heldu da (bortan Paulo agertzen da saltsa bezala apaindua, orraztatua)
- Paul : Jaun andereak, gau on guzietan (hurbilduz eta emazteek bertze urrats bat gibelerat. Ixiltasun handiena. Izeba Matilda ere satzen da) ta botan gelditzen, memento bat).
- Mat : Zer zirezte, denak mututuak ? Hurbil hadi seme (Paulo gizonki hurbiltzen da). Perez Roldan anderea (presentatuz).
- Lulu : Barkatu, izeba, Lulu nahiago dut.
- Paul : Nola ez ba... Lulu... (besarkatzerat doa).
- Mat : Hola ez. Andereak ez dituk besarkatzen. Eskuan musu eman bakarrik.
- Paul : Barkatu... (eskuan musu emaiten dio, jende handiak bezala). Zure oinetan anderea...
- Lulu : Milesker... Goresmenak... Hogoita zonbat ?
- Paul : Hogoitasei.
- Lulu : (Hatsa hartuz) Ai... Adinik ederrena... Hau berriz gure gure alaba Fifi.
- Paul : (izeba Matildari) Huni ere eskuan musu eman behar d'ot ?
- Lulu : Bai zera ! Huni ez ~~ez~~ eskuan... Ez ahal zirezte kusi urrunak ? Nahi baduzu emakozu musu bat kopetan.
- Fifi : (jauzika gibelerat egiten du). Ez !
- Paul : Kopetako musu horrek ez dio onik egin... Beste nunbait nahiago naski...
- Mat : Emakozu eskua.
- Paul : Gogetik (eskua tinkatzen dio azkarki. Eta gero neska bere esku minberatuari so).
- Anj : Ez zazula kasu egin... Indar haundiegia du eta ez daki bere indarraren berri.
- Paul : Fifi zira beraz... Harritzeko da... zertako ?
- Fifi : Egia erran Josefina dut izena... Bainan etxekoek Fifi pollitago dela diote eta hala erraiten dautate.
- Lulu : Zure ezagutzeko haur hunek zuen errabia... Ez du bertzerik aipatzen. Gero elgarrekin joanen zirezte... Ez da hala gaztea ?
- Fifi : Bai ama.
- Mat : Perez Roldan medikua ta Antropologi irakaslea.
- Paul : Besarkada irakasle (bere kontra tinkatzen du).
- Anj : Ez hoinbeste tinka, itoko duk. (Izebak edariak eta gaineratikoa eskaintzen dituzte afaltzarreri. Batzu xutik, besteak jariak bainan ez da nehor jartzen mahaiari).
- Irakas : Galde batzu egingo daukitzut.
- Paul : Bota ba.
- Irakas : (basca utzi ta liburu ttipi bat ateratuz). Zoin dira zuretako jostagaiak maiteenak ?
- Paul : ~~Bata~~. Ihizia ta araintza.
- Irakas : (harro harroa) Ez ahal dautzuet erran ? Hirugarrena joka artzea naski.
- Paul : Ez eri ez... Ni mendiko gizon basa bat naiz. Joka artzea uzten dut zuek bezalako gizon eskolatuentzat.
- Irakas : Eta desinak ?
- Paul : Eder zaizkit.
- Irakas : Segur nintzan (eta bere karnetean izkiriartzen du). Eta gauza ditirantetan, zoin nahiago dituzu ? Orratzak, kolierak ala petentak ?
- Paul : (extiki) Izarrak eta neska gazteen begiak.
- Anj : (harro harroa) jar maite, jar, irakasle.

- Fifi : Xarmegarri... Noiz joanen gira baratzerat ?
 Irakas : Gero, haurra, gero. Nik behar dut orai... Zoin hitz zaizkitz ederrenak ? Luzeak ala laburrak ?
 Paul : laburrak. Fifi; Lulu ta holako izen batzu
 Mat : Jarri, irakasle, jarri
 Rel : ez ahal litaike hobe horiek denak
- Fifi : (xutituz) goazen aitaxo. Otoa idekia dugu ta mutilak uhar bat heldu dela erran du.
 Paul : bai gaur, tenpesta dugu naski
 Irak : jarri nahi ahal desute denak enekñ ?
 Rel : hobe duzu uztea irakasle
 Irak : galde bat bakarrik... ta minbera... ez ahal zira kexatuko?
 Paul : (kexu) ni arras goxoan naiz. Erran zazu (afaltimrrak berriz jarri dira, denak eskutan... Ixiltasunean izeba Anjeli-ren kantua entzuten da... beti kantu bera...)
 Paul : Strauss utzi bakean izeba... Erradazu, erran;
 Irak : zure zaldi ta xakurrak maite dituzu naski.
 Paul : Begi ninika bezala
 Irak : Bainan zure barne hortan ez ahal duzu sekulan abereak jo ta xehatzeko ideirik izan ?
 Paul : nik abereak gaizki hartu... ez ta sekulan ere... Ikusten d dezute, orai ari naiz ba galdeeri gelditu gabe arrapostu emaiten.
 Irak : (Estonatua) Hitz hoiekin zer erran nahi duzu?
 Paul : Oraino gehiago xehetasun nahi ? Segizkitzu beraz zure galdeak
 Mat : (izitua eta xutitua) Ez seme ez, hau sobera da.
 Anj : (xuti ta ahizpari begiratuz) Hi ixilik eta hik Paulo segi (denak arrabotsa eginez xutitzen dira)
 Lulu : Hau ez da soportatzen ahal... hemen...
 Rel : Ez kxx kexa! hau da elgarren arteko afarria !
 Lulu : Barkamena galda berehala...
 Fifi : Goazen ama. Orai hasiko da orroaz.
 Jul : Huntaratzea...
 Irak : Ezti, adixkideak eta ixo, jakintsaren izenean...
 Lulu : Berriz ere zutaz trifatuko da...
 Irak : Ixilik, erran dut. Erasi aldi bat gora behera, berdin du.
 Paul : (gero ta kexuago) Jakitate zoragarria zurea ! Zure jakitatea atxikazu zu bezala sendo direnentzat....
 (Hori erraiten, Marga, untsa beztitua, sartzen da).
 (Pauloren ganat joanez ezti arazteko).

Lehenagoak eta Marga

- Marg : Paulo, Paulo maitea... Ezti hadi...Hire onetan duk....
 Paul : Hara hor hire munduko hiretarat, hire kastakoak...Zikinkeri hortarat ereman nahi nindunan ?
 Marg : Zer egin dezute bere onetik hola ateratzeko ?
 Paul : So egin zezak hoieri...Horiek, gizonak eta emazteak ?Ez ba Piltzar batzu ditun...Alde batetik nigar egiteko...Bertze bat irri egiteko eta bestea agur egiteko (trufa egiteko edo eginez) "Bonjour Monsieur , Bonjour Madame...
 Marg : Ez dut konprenitzen zer gertatu den hemen. Zoazte denak hemendik....
 Lulu : Bai, hobe... Hau da ahalgea.
 Paul :(Geldi araziz). Geldi hortxe. Ez zirezte zirkarat etorri... gazte basa batez irri egiterat... Irri egin beraz...Bainan basa horrek du zuetaz irri egin gogo. (Mahi gainetik xilintxa hartuz jo egiten du).
 Euxebio.... Euxebio....

Marg : 'f (besotik hartuz) Ez hori otoi... Paulo ! (Paulok pusatzen du oihu eginez eta xilintxa jo egiten du finkiago).

Paul : Utz nezan... Aintzina jaun andereak, aintzina, gaur gixon eta emaxteku hoiien konturat ikusiko duzue zirka bat ederra... (pertsu hauk erranen ditu bakotxareñ artean geldituz)

Irakasle ospetau

Adimenik ez ta

Liburuz inguratu (xilintxa)

Ama

Azalez ederra

Ta barnez ustela (xilintxa)

Erregin-gai Fifi

Algarrekin nahi ? hi hi !

Gutiziarik bai ? hi hi !

Senarrik nai ? bai bai... (xilintxa)

Eta orai ez da hortan fini :

Roldan diruzaitzale

Roldan lege gizon

Roldan diru harrapatzaile

Jul : (hurbilduz) Aski Paulo, aski, hitzik ez gehdago.

Paul : (xilintxa bota ta gustian). Ba huen denbora. Denborarekin denborarekin gizona azkar he ! Kasu (Julio urrats batez aintzinatzen da).

Marg : (bortizki). Geldirik ! Etxe huntan ni naiz bakar bakarra gazte hori eztitu dezakeena.

Rol : Utzak. Bere onetik ateratua duk. (Julio aitarekin gibelerat egiten du).

Paul : Behazan Marga. Denen artean ez duk egiazko gizonik, denak lastozko gizonak mamu batzu... Baina ez gaitie ez hi eta ez ni beren gezurrezko mundu hartarat itzuliko... (berriz oihuka) Euxebio ! Euxebio !

Lehengak eta Euxebio

Eux : (bortan agertzen da) Jauna ?

Paul : Zelazkik segidan bi zaldi. (Euxebio joaiten da). Eta zuek parti hemendik. Berriz jinen naizelarik, hemen hatxemaiten bazaituztet zanpatuko zaituztet... Garbi nahi dut gure etxea (paltca kenduz, bortari buruz badoa).

Marg : Jaun andereak, barkatu hemen gertatu etaz.

Lulu : Berantegi da orai... eta goresmenak... ori da ori untsa hezia den ikaslea !

Fifi : Ez ginuen zoro etxe huntarik jiterik.

Rol : Egun batez lehertu behar zuen. Aitaren ondokoa... Holako egurra halako ezpala.

Jul : Jarri, jarri irakasle... orai bertze zerbait jakinen duzue...

Mat : Zuen falta... hartaz irri egin nahi eta horra !

Anj : Barka zozute. Ez du usaiarik eta soberaxko edan du.

Irak : Ez dugu orai aitzakiran beharrik. Holako aberea etxeh denean kaitlan sartzea hobe da. Goazen (denak joan dira).

Marg : Segizkitzu Matilde eta zuk ere Anjeli. Utz nezazute harekin bakarrik. (denak johan dira elgarrekin mintzatuz. Julio ximinei ondoan gelditu eta dei egiten du Margari).

Marga ta Julio

Jul : Ixtant bat, lehenik zure eta ene arteko zerbait behar dugu erabili.

Marg : Zertako ? Zuk erran beharrak ez dute orai baliorik.

- Jul : Eta hari erran dezaiokedanak ?
 Marg : Ez eta ere. Joko horrekin izitzea uste bazinuen tronpatu zira.
 Jul : Ez didazu errango gizon hori ez duzula maite ?
 Marg : Nere gogo eta odol guziz...
 Jul : Uste duzu orai lehen bezala ixilduko naizela ?
 Marg : Ez daukazu deusen erraiterik. Paulok jakin behar duen guziak nik erranen diot orai.
 Jul : Ez zaitut sinesten. Orduan ere ez zinela beldur erraiteko eta zer egin duzu geroztik ?
 Marg : Orai arte behin ere sekulan ez dutana... Izan untsa...
 Jul : Gaur da zuretako azken epea.
 Marg : Badakit egunetik egunerat beldurrez egun hunen beka egongi nintzan. Bai eder da begiak hestea ta zoriona luzaraztea.
 Jul : Konpreni zazu untsa. Laguntzen ez banauzu bide bakarra gelditze zait. Eta Paulori zuk uste baino kalte handiago egin dezaioke
 Marg : Betiko partitzeak baino handiago ?
 Jul : Aise handiago. Gaurko abiere oihu horiek ikusi eta, irakasleak aise zorotegian sar-arazten ahal du.
 Marg : (izitu ta gibelerat egiten du) Zer erran nahi duzu ?
 Jul : Orai gogpan duzuna bera.
 Marg : Ez !
 Jul : Hogoï urtez bizi aita zoroarekin, xorier mintzatzen eta Jainkoa ikusten duen mutikoa, harrigarri zaitzu erro-etxean sartzea ?
 Marg : Ez ez duzu holakorik eginen ni xutik egöiten ahal naizeno.
 Jul : Harritzekoa ahal da semeari aitarena gertatzea ? Zuri amarena gertatu zaitzun bezala ?
 Marg : Gizon txarra ! (eskuia luzatzen du zarta bat eman nahiz. Julio hartu ta atxikitzen du).
 Jul : Zuri da orai deliberatzea. Orai segidan, zirt edo zart. (Paulo bortan agertzen da, zaldiz ibiltzeko jantzia. Julio hola ikustean, zalhu abantzatzen da).

Marga, Julio eta Paulo

- Paul : Bainan hi oraino hemen ? Eta esku zikin horiek neska horren gainean. (hartzen du ximineitik makoa eta hurbiltzen zaio). Zer da Marga, deliberatu behar dukana ? Zer ? Erran zak.
 Marg : (bi gizonen artean jarriz). Ez, Paulo? ni gatik ba.
 Paul : (Juliori) Hitz egiteko erran diat.
 Jul : Ni ez nauzu hitz egin behar dudana, bera duk. Ez dea hala Marga.
 Marg : Bai nik errango diat, bainan hail hemendik zerbait gertatu aintzin.
 Jul : Bon, uzten zaituztet eta ez zanala deusik ahantz. Gau on (Johan da).

Marga ta Paulo

- Paul : Erradatak otoi, zer da jakin behar dutan kondu zahar hori, Marga ?
 Marg : Entzun Paulo... Bizia emango nukek orai eman behar dutan nahi gabe eta mina ez emaitako. Bainan ez diat nahi gu bien artean izan dadin gezur eta segereturik. Unibersidadeean ginelarik, gazte horrekin... zera ... kurutzatu nauk. (Paulo harritua dago, flakaturik bezala. Makoa eskutik erortzen zai...
 Paul : zer... esan den...? Ez... ez dinat ongi entzun... Ezin ziteke!
 Marg : izigarri duk maite... Nik ere ezin ~~xxxx~~ sinessia diat... Lehen elgar maite ginian, bai bainan orai nardatzen nik.
 Paul : (Harritua) Ez, ez ez marga... Erraidak bihar iguzkiak ez duela argituko, orai berean mundua lehertu dela, guziak sinestsiko ditinat... bainan... hori ez!!!
 Marg : Gordetzea okerrago. Egun batez jakinen huen eta nik erraitea hobe.

- Paul : Ordian, egia dun ? Burutik zangoetarat dardara bat pasatu gabe ez deat musurik emaiten ahal... Hi, besterik ez bezelakoa... hi bakar hori, hi ere bai ?
- Marg : Bai, maleruski, ni ere bai, maite...
- Paul : Eta kapable haiz hori eni ~~xxxx~~ buruz buru aitortzeko ?
- Marg : Hik baino gehiago sofritzen diat, bainan ez duk nere falta Hortako ez diat barkamendurik eskatzen.
- Paul : Untsa dun (so egin gabe mintzatzen da) Orduan ez dinat bi zaldiren beharrik. Batekin aski.
- Marg : Crai bi urte, ikasle nintzalarik, bakartasunak eta beharrak
- Paul : (erotua) Ask! ~~aski~~ Galdetu ahal dinat zerbait ?
- Marg : Ez duk arrapostua... azken agurra bai.
- Paul : Ni gatik atxikan hire agurra.. Begi urdin edo berde, Adelaida edo MARGA, enetako ibuak, dik... Denak berdinak, gizonaren xehatzeko. Hara hor atea !
- Marg : Ez dik balio zakur bat bezala igortzea. Nere balisak prest ~~dira~~ dituk.
- Paul : Zeren beha egonki haiz ba ?
- Marg : Agur egin nahi nikan, bainan herrarik gabe, eskua emanez.
- Paul : Ez gal denborarik alferretan. Joan, parti ! Bestea ez dun urrun bidean. Oraino harrapatuko dun.
- Marg : (penatua). Ori ez... Ez baduk hori konprenitzen... Bakea eman neri. Bainan ez nere kontra herrarik izan... Ez duk eskubiderik...
- Paul : Erna hadi eta etxe hau garbi !
- Marg : (goxoki). Lehenik entzun behar nauk garrasia eta oihurik gabe, memento huntan ni baino aise eskasagoa haiz... Urrikia ta lotsa emaiten daztak.
- Paul : Hara orai, nik lotsatu behar ?
- Marg : Bai hi, gazte azkar, gazte garbi... Bere buruaren jabe den gizon hori erakutsi datak, bainan hori dena ixtant batez g galdu duk... Zertako hire indar garbi hori ? ...Neska gaixo baten erausteko. Zertako hire buruaren jabe ? Nerea galtzko. Eta hire garbitasuna nun duk ? So eginzak crai hire buruari : Mamu irringarria, erdi basa, erdi ergel hoietarik...
- Paul : Hori hire lana zukan....
- Marg : Bai egia duk hortan, hire indarrak bezain handi ta eder zen arima moldatu nahi izan nikan, eta diat jakin izan...Zorigaitz ikaragarria. Eta horiek guziak hola, gu bien artean nehork zorrik badu, hi haiz zordun.
- Paul : (bortizki), Nik ez dinat neherekin zorrik. Hiekin balinbadut, hail Administradorearen ganat, ta kito...
- Marg : Ez nian hitarik holako gauza bortitzik igurikatzen... Hi bezalako gizon ziñtzo batentzat ez duk gisa? A ta neskatoari etxetik partitzean balisak so egiten zaizkieten bezala, so egin zak nahi baduk eneeri ere...inkasean zerbait gorderik johan dutanez. So egizak untsa hire zilarrak eta dirua...
- Paul : Ibual zatak... Ohoinean artean usatua nun.
- Marg : Bai ? Orduan so eginzak hire edola hea osorik ote dukan... ala ote etxe huntako antasunik ederrena;;, nik juhan diat... Haurra....
- Paul (brau itzuliz). Haurra ? ... Ene semea?...
- Marg : Seme edo alaba, zer eskubidez deituko hiekek hirea ? Hik semea bakarrik ezarri duk, nik aldiz bihotza. Mundu huntan daukaten guzia, sabelean diat, eta ez daitak nehork ere kenduko Milesker beraz ! (partitzerat dea ta Paulo aintzinean jartzen zai)
- Paul : Geldirik hor ! Estakuru pollita ni saretan arrapatzeko !
- Marg : Kendu aintzinetik !
- Paul : Ez, ez haiz sortzea arte joanen... Gero bai, bainan bakarrik... (indarroan baztertzen du). Eta berriz leheng, ixtoria... Kondaira zaharra... Hi hire mundu ergelerat... Nere ttipia, nerekin, han gain heietarat...

Marg : (erhotua) Hori ez sekulan ez... Haurra izanen da ene biziko fruiturik ederrena. Oso osoki izan nahi diat haur hunen ama (Belaunak makurtzen zaio eta trenpu xartzten da)
(Paulok atxitzen du).

Paul M Marga... Marga...(Margak zentzua galdua du ta Paulok besoetan dauka. Tximinia ondoko fotilemat joan du). So egin zak neri. Ez nakian zer erraiten nuen. (Oinetan belaukatuz) (eta eskuetan musuka). Begira zak eni, bairan hire begiz...MARGAA iratzar hadi...MARGAA (Marga lehen bezala geldirik...Bat betan argi guziak hil eta bi kandelabro ta suaren dirdira baiziki. Haize kolpe batek erridauak igitzen ditu. Paulori mendian gertatu bezala beldurra sartzenzai). Zer da hau ? Esku hauk geldituak ? Bixtarik gabeke begi hauk ? Zer da ilunbetan sartu den hotz hau ? (dardaraka xuti, eta bere kontra hartuz goxokE) Ez e Heriotzerik ez! Nere bizia luzatzekotan elgarekin ... ez nezan bakarrik utzi ... Ezagutu ta gero ... ez... Berriz ere ... ez...

(orduan ximista bat ageri ta ortzi karraska ... Paulo, itsuturk argi horta rat so egiten du)

Eskerrak, Jaun Jainkoa... eskerrak...

(Marga polliki polliki memoratzen da)

Marg.: Maite.. (Paulo zalhu berriz bere oinetarat)

Paulo.: Hemen nauzu... Betiko zurekin Marga.

Marg. : Ez nezazula utz...iduritzen zaut hiltzerat noala...

Paulo: Ez izi... Herio tzen ez duk ausartatuko... bizia zutan baitago eta Jainkoa gurekin... Eta sekulan erra ez dautazun hirugarren hitz hura ?

Marg. : (bere burua Pauloren kontra emanaz).

Maitasuna..... Maitasuna..... Maitasuna.....

